



# Zurea ere baden saria

GUAIXEk Azalik Onenaren Tokikom Saria ekarri du Sakanara / 6-7

**Hamabost urteren ondoren, atzera ere, Aralar mendian guardetxea dago, gobernuak eraikita** / 11

**Sakanako Mankomunitateak edukiontzi berdeak grisengatik ordezkaturiko ditu** / 5

**Rafael Carasatorre Vidaurrek 'Barranca-Burunda' liburua eduki gehiagorekin berrargitaratu du** / 9

**Fermin Herrerok Kirol Merituaren Zilarrezko Domina jaso du 36 urtetan saskibaloia sustatzeagatik** / 18-19

**Markos Beraza Espainiako Enduro Txapelketako senior B mailako txapeladuna, hirugarrenez** / 20

**Artozkiko erresistentziaren urteurrenean sortutako 'Artezki', Altsasun** / 23

## SINADURAK



Abenduak 13

# EGUBERRIETAKO GEHIGARRIA

Jarri zure publizitatea!

PUBLI@GUAIXE.EUS  
948 564 275(2) / 661 52 32 41





Jorge Arias, Gorka Garzia Sertutxa, Juan Kruz Aldasoro eta Aduna Mendizabal.

# "Harrera baliabidez hornitu behar da orain"

**ADUNA MENDIZABAL ETA JUAN KRUZ ALDASORO HARRERA ELKARTEA**

Preso edo iheslariak espetxetik edo erbestetik itzultzean, jendartean egokitze eta haien bizitza berria duintasunez eraikitze laguntza ematen du erakundeak

**Eneida C. M. eta Alfredo A. I.** SAKANA Harrera Elkarteak batzarra egin berri du. Presoen egoera aldatzarekin batera, asistentzia erakundearen egoera berregokitu behar izan dute.

**Noiz eta zergatik sortu zen elkarteak?**

**Aduna.** Harrera Elkarteak 2012an sortu zen, irabazi asmorik gabeko asistentzia elkarte bat da. Bere helburua da preso zein iheslari ohiak kalea zapaldu edo erbestetik itzultzen direnetik babesa eskaintzea, haiei itzuleran laguntzea. Haien bizi berria eraikitze asistentzia laguntza bermatzea. Azken batean, bizitza duin bat izan zezaten eta sor zitezkeen beharrei aurre egiteko helburuarekin sortu zen.

**Zer lan egiten ditu?**

**A.** Ekonomia babesa ematea. Administrazioen aurreko izapideak egiten laguntzea, dela nortasun agiria, osasun txartela, laguntzak eskatzea... Osasun beharrak asetzeko laguntza ematea edo bermatzea baita ere. Zeren kanpoan urte asko eman dituztenek osasun arreta ez dute bermatua izan. Beraz, dentistak, oftalmologoak, psikologoak eta beste haien eskura jartzen ditugu. Bestetik, adinez eta osasunez lanerako moduan direnei lan bat topatzen laguntzen diegu. Horrekin batera, gidabaimena berritzeko baliabideak ematen dizkiogu ere. Bada beste multzo bat adinean oso aurrera eginda ateratzen direla. Urte asko kanpoan eginda, kotizazio oso gutxiarekin, apenas egin baitute lan. Horiek laguntza publikoak eskatzeko zailtasunak izaten dituzte. Onartzen ez dieten kasuetan guk bermatzen diegu hileroko dirulaguntza hori. Laburbilduta da egunerokoan egiten dugun lana. Horretarako, haiekin harreman estua izan behar da, premiak detektatu eta haiek betetzeko.

**Zenbat eta preso eta iheslari guxtiago egon, elkartearen egitekoa handiagoa da?**

**A.** Behin dispersio politika bukatuta, presoen gehiengoa Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan egonik, egoera al-

datu zaigu. Preso bakoitzaren espetxe ibilbidea garrantzia handia izaten ari da: baimenekin ateratzen ari dira, hirugarren graduan, baldintzapeko askatasunean... Kasuistika oso desberdinetan ateratzen dira kalera. Harrera Elkartearen lana kalea zapaldu aurretik hasten da: zer behar izan ditzaiken atzemateko, familiaren babesa duten jakiteko... Egoera desberdinak dira eta erantzun pertsonalizatuak ematen ditugu. Hori da gakoa.

**Zer antolaketa du elkarteak?**

**A.** Elkarteak zuzendaritza batzordea, bazkideen batzarra eta langileak ditu. Herrietan laguntzaileak dauzkagu, haiek dira elkartearen begiak, ezinbestekoak dira. Hala ere, gu kalea zapaltzen duen bakoitzarekin pertsonalki egoten gara, zer behar dauzkan jakiteko. Gero herriarekin adosten da, esaterako, etxebizitza behar badu, edo lan bat opatu behar baldin bazaio.

**Zein da Sakanako egoera?**

**Juan Kruz.** Lehendabizi esan azkeneko 50 urteetan bakarrik sei hilabetez egon dela Sakana preso eta iheslaririk gabe. Tamalez, hamarnaka sakandar pasatu dira espetxetik eta erbestetik. Eta momentu guztietan izan dute sakandarren eta Euskal Herriko gainontzeko lurraldeetako herritarren babesa, laguntza. Beraz, egin behar den lehendabiziko gauza da herriari eskertzea urte guztietan egin duen lana eta erakutsi duen konpromisoa. Gaur egungo egoerari dagokionez, sakandar bat erbestean dago: Hilario Urbizu San Roman olaztiarra. Eta lau preso ditugu. Haietako bat, Asier Karrera Arenzana, baldintzapeko askatasunean dago. Beste bat, Luis Mariñelarena Garziandia, hirugarren graduan dago. Hau da, astegunetan espetxera lotara joaten da eta asteburuan kalean egoteko aukera du. Beste bi presoak bigarren graduan ditugu: Juan Ramon Karasatorre Aldaz, Iruñeko espetxean preso, eta Unai Parot Navarro, Martuteneko espetxean preso. Pentsatzen



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**GIDARIDUN LEHIO BERRIAK**  
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



dut Parot dela euskal presoan artean kartzelan jarraian denbora gehien daramana, 34 urte. Hasi da kalera txango batzuk egiten, baina bigarren graduan segitzen du, nahiz eta salbuespen politikarrik ez balego kalean egon beharko lukeen. Karasatorrek 23 urte daramatza espetxean. Azken lege aldaketarekin, bere espetxe egoera epe laburrean alda daiteke. Baina, momentuz, preso segitzen du eta babesa behar du.

Adunak esan duenaren gainean, esanen nuke garai berriek konpromiso berriak eskatzen dituztela, lan egiteko molde berriak. Eta hori da eskatzen dieguna Sakanako herritarrei: orain arte erakutsi duten babes hori momentu honetan ere erakusteko, beste bulkada bat ematea. Egoera honekin bukatzeko azken txanpan egon gaitezkeen honetan ahalegin berezi bat egitea, orain etxera bueltatzeko bidea egiten ari diren preso guztiei babes eta akonpainamendua eskaintzeko, egoerak eskatzen duen moduan, gizarte honetan duintasunez bizitzeko gizatasunak eskatzen dituen gutxieneko batzuk izan dezaten. Harrera Elkarteak du erronka hori. Momentu honetan elkartea bali-

bidez hornitu behar da. Harre-  
ra denok gara. Hari ekarpena  
eginez eta indartuz bermatuko  
dugu etxera etortzen diren pre-  
so guzti horiek bizitza duin bat  
izatea.

#### **Batzarra egin berri duzue. Zer duzue kontatzeko?**

**A.** Urteko batzarra maiatzean egin zen. Egoera berria ikusita, erabaki zen zuzendaritza berria hautatzea. Hautatu zen. Eta egoera berriari aurre egiteko elkar-  
tea berregokitu behar zela erabaki zen. Gradu progresioek sortzen duten behar berriei erantzun egokiak eman ahal izateko eta asistentzia laguntza dimentsionatzeko beharra ere ikusi zen batzarrean. Horregatik, ezohiko batzarra deitu genuen azaroaren 9an. Han aurkeztu ditugu elkartearen hurrengo lau urteetarako ildo edo erronkak. Bere osotasunean onartu ziren. Lehenengoa da asistentzia eta laguntza integrala ematea orain

### **"HAIKIN HARREMAN ESTUA IZAN BEHAR DA, PREMIAK DETEKTATU ETA HAIK BETETZEKO"**

arte egin den bezala. Baina ka-  
suistika askoz zabalagoa dauka-  
gu orain. Lehen esandakoa, la-  
guntza ekonomikoa bermatzea  
hilero sostengu bat izan dezan  
iheslari ohi horrek, etxebizitza-  
ren premia bete izatea, osasun  
arloan behar dituen medio guz-  
tiak jartzea, osasun publikoan  
nahikoa ez baldin bada guk lortu  
beharko lituzkeen bestelako  
kontsulta guztiak, gradu aurre-  
rapenen esparruan daudenei  
gidabaimena berritzeko aukera  
izatea, administrazio izapideetan  
laguntza ematea, errolda edo  
nortasun agiria berritzea, osasun  
txartela berritzea... Berritasuna  
da elkarrekin Donostian etxebi-  
zitza bat alokatu duela. Graduan  
edota 100.2 artikuluan dauden  
presoek egunerokoan erabil de-  
zaten, atsedean hartzeko, lo ku-  
luxka bat egiteko... zeren ordu  
asko pasatzen dituzte kalean,  
boluntario lana edo beste dela.  
Babes etxe bat da. Gainera, lege  
esparruan aholkularitza sarea  
hedatzea da beste erronka bat.

Bestetik, euskal gizarteko hain-  
bat esparruren inplikazioa nahi  
dugu. Harremanak indartzea da  
helburua. Ipar Euskal Herriko  
Harrera Elkartearekin harreman-  
ak indartzea, bi estatu desber-

dinen menpe gaudenez erreali-  
tate desberdinak daudelako.  
Baina badaude zenbait egitasmo  
elkarlanean landu ditzakegunak,  
eta horiek aztertzea eta eta koor-  
dinatzea izango da helburua.  
Gainera arlo instituzionala eta  
politiko-sindikala. Gainera, lan  
munduan harreman sarea eraiki  
eta Harrera Elkartearen lana  
aurkeztua zein den eta gure eskua  
luzatu haiekin elkarlanean aritu  
ahal izateko.

Elkartearen elkartasun ezaug-  
garria eta antolaketa eredu da  
hirugarren lan ildo. Zeintzuk  
osatzen dugun: langileok, herrial-  
deetako ekipoak, hainbat arlotako  
aholkulariak (lege adminis-  
traziokoak, soziosanitarioak eta  
soziolaborala), zuzendaritza ba-  
tzordea eta gero ohiko batzarra  
bazkideekin egiten dena kontras-  
tatzeko eta erabakiak hartzeko.  
Eta azken puntua, erronka gisa  
planteatzen duguna, elkartearen  
kudeaketa da. Aurrekontuaren

### **"EGOERA BERRIARI AURRE EGITEKO ELKARTEA BERREGOKITU BEHAR ZELA ERABAKI ZEN"**

estimazio ahalik eta zorrotzen  
egitea da helburua. Bestetik Ha-  
rrera onura publiko elkarre gisa  
aitortzeko beharrezko kudeake-  
tak hasiko gara. Horrek balioko  
liguke erakundeekin harremanak  
errazteko eta instituzioetatik  
laguntza jasotzeko, eta beste.  
Bazkideak elkartearen motorra  
eta bihotza dira. Eta haiek or-  
daindutako kuotak elkartearen  
diru iturri nagusia dira, baina  
heldu den egoera ikusita motz  
geldi daitezke. Horregatik 2025ean  
bazkideetza kanpaina indartsua  
martxan jarriko dugu. Helburua  
5.000 bazkide izatea da, gaur egun  
3.200 inguru gara. *5.000 baietz!*  
erronka egin dugu.

#### **Kanpaina herrietan martxan jarriko duzue?**

**J.K.** Hori da. Harrera elkarrekin  
sare gisa funtzionatzen du. He-  
rriren batean falta zaigu harre-  
mana lotzea, baina hurrengo  
astetan herri guztietan egon  
da jendea. Kuadrillaz kuadrilla,  
familiaz familia, elkarrekin elkar-  
te herritarrekin hitz egin eta  
Harrera zer den azalduko diete,  
jendeari bazkide egiteko eskaera  
eginen diote. Haiengana jota behar  
dituzten azalpen guztiak emanen  
dizkiete. Bestela, *harreraelkartea.*  
*eus* webgunean ditu.

## **"Balorazioa ona da, eta oraindik hobetu daiteke"**

OIHAN BARANDALLA GOÑI PRESO OHIA

Frantzian hamahiru urte eta erdi preso egon ondoren 2021eko martxoaren 12an aske gelditu zen etxarriarra.

#### **Preso zeundela Harrera Elkartearekin harremana izan zenuen?**

Preso nengoela ez nuen harremanik izan. Baina bagenekien lanean zebiltzala. Aske utziko zaituzten eguna iritsi ahala zalantzak daukazu: "zer paperekin ibili behar naiz?" Espetxeak ematen dizun paperekin ateratzen zara. Esaten ziguten: "lasai, Harrera hor dago eta lagunduko dizute". Behin kartzelatik aterata, bai. Arduradun bat etorri zen eta harremana izan genuen.

#### **Preso zeundela elkarrekin harremana izan zuenik ezagutzen duzu?**


Banekien Frantzian preso batzuk baldintzapeko askatasunean aterako zirela, eta banekien jendeak kanpoan etxeren edo harrera lekuren bat prestatzen ari zirela. Hori entzuten zen, presoekin harremana zutela atera baino lehen.

#### **Nola baloratzen duzu elkartearen lana?**

Lehenik eta behin, elkarrekin bat behar zen presoak ateratzean lehendabiziko pauso horiek ematen laguntzeko. Balorazioa ona da, eta oraindik hobetu daiteke.

#### **Zu zertan lagundu zintuen elkarrekin?**

Ni atera nintzenean, zorionez, senideek, bai arrebak bai bikoteak-edo, berehala lagundu zidaten paperak egiten. Laguntza handia izan zen. Gainera, COVID garaian atera nintzen, etxetik ateratzeko ordutegiak zeuden eta harremanak azkar egiterik ez zegoen. Senideek lagundu zidaten gidabaimena eta nortasun agiria ateratzen. Ondoren Herrerakoa etorri zen eta paperak egiten ere lagundu behar zidaten. Baina eginda nituen. Beraiek laguntza handia eman zidaten ekonomia arloan, lor nitzakeen dirulaguntzen berri eman zidaten, nola egin behar zen, horretan lagundu ninduten. Dentistarekin ere. Lanerako, ikasketak bukatu beharra nituen, gradu akaberako lana aurkeztu beharra nuen. Hori dela eta ikasketen



UTZITAKOA

#### **"BEHAR ZEN PRESOK ATERATZEAN LEHENDABIZIKO PAUSO HORIEK EMATEN LAGUNTZEKO ELKARTE BAT"**

lanbidean aritzen den Herrerako kide batek hots egin zidan eta edozein laguntza behar banuen berari hots egiteko esan zidan. Zorionez, arrebarekin aurrera eramatea lortu nuen. Nire kabuz gauza asko egitea lortu nuen. Banekien Harrera Elkarte hor zegoela eta esana zidaten edozer behar izanez gero hots egiteko. Babes puntu hori baduzu.

#### **Jendarteak elkartearen lana ezagutzen du?**

Presoa ateratzean egin behar den lehendabiziko gauza lana bilatzea da. Elkarteak, behar bada, ezin ditu hainbat lanbide bilatu. Jendeak baldin badaki Harrera lanbideak bilatzen ari dela, jendeak Harrera Elkarte zer den jakitea beti da ona, esaterako, hari lanak eskaintzeko. Edo autoeskola batekoak gidabaimenekin laguntzeko. Gaur-gaurkoz Harrera Elkarte ez da leku guztietara iristen. Herri mugimendu bat izan behar luke. Herriko jendeak lagundu nahi badu, Herrerara joan eta haren bidez gauzak mugitu ditzake.





ASTEKOA

RAF ATXURI

## Militarismoaren atzaparretan

Azken garai honetan ernatu eta indartu da atzera berriz iratxo erraldoi doilor eta maltzurra, giza izaeraren ezinbesteko osagai gerlari eta suntsitzailea, sekula lekutu ez zena, baina txoko batean, zigortu antza, herabetua zegoena.

Egun, harro, zakar eta handikiro dabil munduan militarismoa bazterrik bazter, hamarkadetako legatu antimilitarista sendoa birrindu duelarik oso denbora gutxian.

Europak ez omen zion ipartar Ameriketako inperio zuriari behar adinako arma gastua egiten eta Merkelen ondare pragmatikoa firikan bota ondoren Ukrainako auziak bidea ireki zion zabal-zabal arma dantza berri eta ongi hornituari. Berlingo harresiaren deuseztearen ondoren, Balkanetako, Ruandako eta Golkoko gerraldiek eutsi zioten garrari eta gudu giroari, baina epel, beti ere.

Ukrainakoak eta azkenaldion Palestinakoak beldurra, izua eta ikara berritu eta zabaldu ditu planetako lau haizeetara, eta mugimendu antimilitaristak (Vietnameko zikloaz geroztik arrakastatsu eta eragile bilakatu zena) erretiratze taktiko eta

## ESPEZIE BEZALA GAIZKI, OSO GAIZKI GOAZ ETA EZ DIRUDI EPE LABURREAN, ZIABOGA EGINGO DUGUNIK

azken hamarkadotan informatika alorrean zer esanik ez, Adimen artifizialaren lehen garapenera iristeraino. Giza eta gizarte zientzietan teoriarik apika bai, praktikan ordea? Nagu urrats izuti bat (NBERen sorrera) baino ez dugula egin, gerlagintzan dozenaka urrats egin diren bitartean.

Etxe Zurian maizter zahar-berria (ezen ez berritua) etortzekotan da, bere adrenalinadun segizio ondo hormonatuarekin. Zenbat urte iraunen du ziklo guduzale honek?

Espezie bezala gaizki, oso gaizki goaz eta ez dirudi epe laburrean, ziaboga egingo dugunik taxuzkoago, bidezkoagoa den zerbaiten bila. Azken mendeetan zientziak eta teknologiak aitzina egin dute izugarri,

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## HARA ZER DIEN

### Ez da antzerkia, indarkeria bikarioa da

#### SAKANAKO MANKOMUNITATEKO ETA ALTSASUKO UDALEKO BERDINTASUN ZERBITZUAK

Beste urte batez Azaroaren 25a, Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna bizi izan dugu. Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1999ko abenduaren 17an onartu zuen egun hori, Dominikar Errepublikako hiru ekintzaile politiko, Mirabal ahizpak, ohoratze; Rafael Trujilloren diktaduran bortizki erail baitzituzten 1960. urtean. Orduetik urtero mundu osoko kaleak aldarriz bete dira indarkeria sexistarik gabeko bizitzaren alde.

Indarkeriarik gabeko mundu bat aldarrikatzen dugu, non emakumeak zein haurrak

beldurrik gabe, mehatxurik gabe eta beren eskubideen berme osoarekin bizi ahalko diren. Aurten, indarkeria horren modu suntsitzaile eta krudelenetako batean jarri nahi izan dugu begirada: indarkeria bikarioan.

Matxismoaren muturreko adierazpena da, eta emakumeak kaltetzea du helburu. Horretarako, erasotzaileak bere gertuko jendea erabiltzen du, batik bat seme-alabak, emakumeari ahalik eta kalte emozional handiena eragiteko. Indarkeria mota horrek sekulako aztarna uzten du jasaten dutenengan, eta, kasu askotan, neska-mutilen heriotza eragin dezake.

Indarkeria bikarioak emakumeak eta euren hitza etengabe zalantzan jartzen dituen gizarte baten konplizitatea du; hori dela eta, leloak "Ez da antzerkia, indarkeria bikarioa da" dio.

Horregatik, ezinbestekoa da gure politikak eta baliabideak indartzen jarraitzea indarkeria matxista mota guztiei aurre egiteko, baita ikusezineki ere, indarkeria bikarioari, psikologikoari edo manipulazioari zein indarkeria instituzionalari. Emakumeek eta adingabeek bakean bizitzeko eskubidea dute, eta toki entitateok funtsezko erantzukizuna dugu alde horretatik.

# DATORREN ASTEAN ZUBIA EGINEN DUGU!

Abenduaren 9an egonen gara bueltan

**guaixe**  
fundazioa

**guaixe**  
komunikazio taldea

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
[erredakzioa@guaixe.eus](mailto:erredakzioa@guaixe.eus)

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

**Irratia:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
[irratia@guaixe.eus](mailto:irratia@guaixe.eus)  
948 567 074

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)  
661 523 245

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

**ARGITARATZAILA:**  
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275

**Maketatzailea:**  
Lune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

**GK diseinu zerbitzua:**  
Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
619 821 436  
Ainhoa Etxebarria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)

**Administratzailea:**  
Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

**Zuzentzailea:**  
Felix Altzelai Iriarte

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**guaixe**  
kide



**Gobierno de Navarra**  
**Nafarroako Gobernua**

## Sexu indarkeria kasu bat izan da aurten

Pandemiaren ondoren erasoek gora egin zuten eta bederatziz izan ziren joan zen urtean

SAKANA

Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Eguna dela eta, Nafarroako Berdintasun Institutuko (NABI) Emakumeen kontrako Indarkeriaren Atalak sexu indarkeria kasuen berri eman du: Sakanan sexu indarkeria kasu bat izan da aurten. NABIk emandako datuen arabera, sexu indarkeria pairatu duenak 17 urte edo gutxiago ditu, erasotzaileak, berriz, 18 eta 29 urte artekoa da. Erakundeak zehaztu duenez, familia barruan gertatutako sexu indarkeria kasua izan da.

NABIk jakinarazi duenez, aurreko lau urteetan hamalau kasu izan dira ibarrean: 2020an bi, 2021ean 1, 2022an bi eta 2023an bederatziz. Biktima gehienak 17 urte edo gutxiago zituzten. 30 eta 49 urte arteko hiru ziren eta 18 eta 29 eta 50 eta 64 urte arteko bina sexu indarkeria biktima izan ziren. Erasotzaile gehienek, zazpik, 30 eta 49 urte artean zituzten, hiruk 50 eta 64 urte artean eta bi kasu zeuden 18 eta 29 urte artekoen artean eta beste biren adina ez zen ezagutzen. Hamalau erasoetatik zortzitan ez zegoen harremanik biktimaren eta erasotzailearen artean. Bostek bestelako erlazio bat zuten eta eraso bat familia barruan izan zen.

## Haurrei euskara oparitzeko laguntza eskura

Euskarazko liburuak, musika edota jostailu eta jokoan 7.700 erreferentzia ditu 26. edizioak

SAKANA

Euskal Herriko ehundik gora tokiko erakundetako Euskara Zerbitzuek, Sakanako barne, *Euskarazko Produktuen Katalogoaren* edizio berria osatu dute. Bai web orriak zein paperezko edizioak itxura berria mustu dute. Bietan produktuak bi ataletan daude sailkatuta: 0 eta 12 urte bitarteko haurrendako produktuak eta 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako produktuak. Gurasoendako atal bat ere badago.

Jakina, paperezko edizioak ez ditu jasotzen Katalogoa.eus webgunean jasota dauden produktu berri guzti-guztiak. Sareko bertsioan produktuak atalka daude antolatuta: musika, filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailu eta jokoak eta gurasoendako materiala. Atal bakoitzean produktuak tituluaren, argitaletxearen, autorearen, adin tarteren edota prezioaren arabera bilatu daitezke. Maiz eguneratzen da web orria, produktu berriak sartuz, deskatalogatu direnak kenduz. Argitaletxearen denda birtualera sartzeko aukera ere ematen du. Webguneko buletin elektronikora harpidetuta, no-bedadeen segimendua egin daiteke urte osoan.

# Agur edukiontzi berdea, ongi etorri grisa

Sakanako Mankomunitateak Arakil, Irurtzun, Irañeta, Arruazu, Ergoiena, Lizarragabengoa, Altsasu eta Ziordian dauden edukiontzi berdeak grisengatik ordezkatu ditu abenduaren 2tik aurrera. Grisa errefusa hartzeko da

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroan gehien birziklatzen duen eskualdea da Sakana. Birziklapena eta hondakinen kudeaketa maximizatzeko asmoz, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak bilketa mistoa duten sei herrietako etxolatan eta Irurtzunen eta Altsasun dauden edukiontzi berdeak kendu eta grisekin ordezkatu ditu. Olatz Garde Mazkianaren teknikariak jakinarazi duenez, "edukiontzi berdean uzten diren hondakinen %87 ez lirateke hara bota beharko, material birziklagarriak dira eta beste edukiontzi batzuetan utzi beharko lirateke, edo Mank-ek eskaintzen duen beste zerbitzu batean". Gardek azaldu duenez, "herriar gehienek edukiontzi berdea nahastutako zaborrarekin lotzen du". Aldi berean, gogorarazi du lege guztiak, tokikotik hasita Europara artekoak, "hondakinak bereiztera derrigortzen" dutela.

Horiek horrela, edukiontzi berdeak 250 grisekin ordezkatu ditu. Tamaina bera dute edukiontzien. Alde bakarra da tapa nagusia giltzaz itxita daukatela eta, tapa horren gainean dagoen tapa txikia balio duela errefusa poltsak edukiontzian botatzeko. "Etxeko hondakin mota guztiak bereizten dituenak, gaineke ta-



Irurtzungo azokan edukiontzi grisari buruzko informazioa ematen. UTZITAKOA

paren tamainarekin ez du arazorik izanen, sortzen den errefusa kantitatea txikia baita (%10). Pixoihalen kasuan, edukiontzira maiz botatzen diren hondakinak baitira. Batere bereizi edo hondakin batzuk bereizten dituztenendako goiko tapa txikiegia izan daiteke zabor poltsendako", azaldu du Gardek. Laguntza eman eta zalantzak argitzeko, Mank-ek herri horietako etxeetara gida bat bidaliko du. Gainera, edukiontziak aldatuko diren herrietan azalpenak emateko zerbitzuak langileak joaten hasi dira.

Teknikariak argitu duenez, "egokitzeko, ilbeltzaren 31ra arte tapa nagusia zabalik egonen da". Mank-etik gogorarazi dutenez, itxi ondoren, hondakinak edukiontzietatik kanpo uzteak isunak eragin ditzakeela: 2.000 euro artekoak arriskutsuak ez badira, 200.000 eurora artekoak arriskutsuak badira.

Aldaketa egiteko Mank-ek 115.121,48 euro bideratu ditu, 57.605,39 euro bereak eta 57.516,09 euro Nafarroako Hondakinen Funtzarenak. Kendutakoak enpresetan erabiliko dira.











redakzio burua.

familia guztiari bidali zion sariaren berri eta familia guztiak zorian dit. Mastodonen (sare soziala) zalaparta dezente egon da. Egia esan, horrek harritu

nau. Eta sari banaketa ekitaldian geundela jende asko hurbildu zitzaigun.

A. Etxekoek eta koadrilakoek zoriandu naute. Besteren batek

ere. Eta batek esan zidan oso fitxaje ona zarela. Gutxienez zale ezkutu bat baduzu (biak barrez). **Zuretako zer garrantzia du Tokikom sari hori ematea?**

A. Euskarazko tokiko hedabideek, sektoreak, ematen digun sari bat da, aitortza. Bestetik, lan onari emandako saria da. Baina, niretako garrantzitsuena, eta halaxe esan nuen sari banaketan: Tokikom euskarazko tokiko hedabideen bateragunea da. Hor 78 komunikabide gaude. Denak gure modukoak edo txikiagoak dira. Handiagoak ere badaude. Oso hedabide txikiak gara eta Tokikomen barruan egonda elkarrekin indar egin dezakegu. Tokimen barruan txikiak handi bihurtzen gara. Elkarteari, batez ere, balio hori ematen diot. Ondoren sariak etortzen badira, primeran!

**Sari banaketa ekitaldian zuk ere hartu zenuen hitza.**

I. Tokiko hedabideei eskari bat egin nien: izan daitezela gure aterki, ertzetan gauden horien guztien aterki. Garai ilunak heldu dira. Komunikabideetatik oso zartako handiak jasotzen ditugu. Uste dut tokiko hedabideek ateriaren egiten lana badutela.

A. Zorionak, Iune!

I. Berdin, Alfredo.

A. Gustura esaten da, eh?

I. Egia esan, bai.

A. Eta zuei ere, irakurle, eskerrik asko. Segi gu irakurtzen.

I. Eta segi gure aterkia izaten.

**"DENOK IZAN BEHAR DUGU MATXISMOAREN AURKAKO ATERKI. KOMUNIKABIDEOK PAPER HANDIA DUGU"**  
IUNE TRECET OBESO

**"EGUN GUZTIA LANEZ LEPO GABILTZA, ETA HALAKOAK EGITEKO BETI DENBORA BEHAR DUGU"**  
IUNE TRECET OBESO

**"TOKIKOMEN TOKIKO HEDABIDE TXIKIAK HANDI BIHURTZEN GARA"**  
ALFREDO ALVARO IGOA



## Lau sari

Tokikom Sarien zortzigarren edizioan lau sari banatu zituen tokiko hedabideen bateraguneak aurten: eduki onenarena Gukak jaso zuen, ikus-entzunezko onenarena Antxeta Irratiak eta azal onenarena **guaixek**. Estreinakoz, Nafarroa saria banatu zen eta Amezitia elkarteak jaso zuen Esan Erran Irratiari buruzko dokumentalagatik.



## Frontoiko teilatua energia iturri

Ziordiko Udalak autokontsumorako ehun plakako instalazio fotovoltaikoa jarri du frontoian, 56,5 kWp potentzia. Han sortzen den argindarra frontoian, udaletxean, gimnasioan eta biltegian erabiliko du. Argiteria publikoaren zati bat ere haiekin piztuko da. Lanek 47.052,10 euroko aurrekontua izan dute, eta udalak 28.521,73 euroko dirulaguntza jaso du.



Kultur etxeko teiladuran eguzki plakak jarri ditu udalak. ARTXIBOA

## Eguzki plakak Lakuntzako kultur etxeko teilatuan

Sortuko den argindarra udal eraikinetan erabiliko da. Hurrengo pausoa eskolako inguratzaille termikoa da

LAKUNTZA

Lakuntzako Udalak kultur etxeko teilatuan eguzki plaken instalazioa jarri du. Han sortuko den elektrizitatea partekatutako autokontsumorako izanen da eta kultur etxean bertan, eskolan eta udaletxean kontsumituko da. Udalak jakinarazi duenez, jarritako instalazioak urtean 29.326 kWh sortuko ditu eta udal eraikinen energia kontsumoaren %49,5 beteko da horrela. Horren ondorioz, udalaren energia fakturak txikituko dira. Baina hori gertatzeko, udalak Iberdrolaren zain dago, enpresa hori baita

argindarraren sarbide puntua baimendu behar duena. Lanak 32.534,48 euroko aurrekontua izan du eta, horretarako, udalak Industria Departamentuaren Trantsizio Energetikorako Zerbitzuaren 17.893,98 euroko dirulaguntza izan du. Electricidad Lizarragak egin du instalazioa.

Energia kontsumoak murrizteko beste neurri bat du esku artean udalak: eskolan inguratzaille termikoa jartzea. Proiektua idaztera 9.970,40 euro bideratu ditu, baina 5.000 euroko dirulaguntza du. Udalak finantzazio iturriak bilatuko ditu.



# "Mutilek STEMekiko interes handiagoa dute"

**JOSEBA ALDASORO ETA ODEI ARREGI ELHUYARREKO ETA SGAKO KIDEAK**  
Sakanako gazteek STEM arlo eta Lanbideen inguruan duten pertzepzioari buruzko ikerketa egin eta hori jardunaldi batean aurkeztu zuten

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Ingeleseko akronimoa da STEM eta zientzia, teknologia, ingeniari-ritza eta matematika arloetako gaiak hartzen ditu bere baitan. Andra Mari ikastola, Altsasu Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea, Sagrado Corazon ikastetxea eta Iñigo Aritza ikastolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako 195 ikasleren erantzunekin egin dute diagnosis.

**Zergatik egin da STEM diagnosis?**

**Odei.** Aspalditik gabilza hezkuntza eta industria uztartu nahian. SGA eta sozioekonomia eragileak ikastetxeetara jotzen dugu, ikasleei Sakanako lanpostuen, industriaren eta dituzten aukerak zein diren azaltzeko. Baina jakin nahi genuen ikasleek zer pertzepzio duten horrekiko. Bi aldeak komunean jartzeko. Azterketa Elhuyarrek egin du.

**Sakanako Estrategia Planean jasotzeko adinako garrantzia du?**

**O.** Erabateko garrantzia du. Hain indartsua Sakanan, bizi garen biztanleriarekin normalean langile beharrak ez direla asetzen. Gainera, langile behar horiek ez baldin badaude lerrotatuta gazteen interesekin, gabezia handi bat da. Gure industriako lanbide gehienak STEMen ingurukoak dira. Landu beharreko esparru oso-oso garrantzitsua estrategia



Odei Arregi Aizpitarte (SGA) eta Joseba Aldasoro Galan (Elhuyar).

planean, industriako alorrean lan ildo nagusietako bat da.

**Nola egiten da STEM diagnosis?**

**J.** Galdetegi baten bidez. Haren muina da Sakanako gazteen lan asmoak eta STEMarekiko daukaten iritzia aztertzea. Galdetegiak hainbat gai ditu. Batetik, gai orokorrekiko eta ikasgai haiekiko interesa galdetu diegu. Bestetik, etorkizuneko lanbideei buruz ere. Sakanako industriari buruzko galdera batzuk ere egin dizkiegu. Baita genero berdin-

tasunaren inguruan ere, bai zientzia eta teknologiarako lanbideekin lotutako industria orokorrari buruz, baita bertako industriari buruzko iritzia ere eman dezaten.

**Non hitz egin duzue gazteekin?**

**J.** Ikastetxetako tutore eta zuzendaritza taldeen laguntza ezinbestekoa izan da. Oso garrantzitsua zen galdetegia gelan betetzea, zeren etxeko lan bezala bidaltzen bada ez dute seriotasun berdinarekin erantzuten.

**Generoa kontuan hartu duzue?**

**J.** Bai. Aspaldi ikusi dugu genero estereotipoek eragina dutela bai etorkizunerako ikasketen hautaketan baita etorkizunerako lanbideen hautaketan ere.

**Gazteek STEMekiko interesa dute?**

**J.** Denetarik dago. Mutilek STEMekiko neskek interes handiagoa azaldu dute. Munduan ere emaitza berak errepikatzen dira, orokorra da.

**Gazte horiek beraien burua STEM arlotan lanean ikusten dute?**

**J.** Interesa izango luketen galdetu diegu eta mutilek interes gehiago adierazi dute. Bestalde, beraien autopertzepzioari buruz galdetu diegu. Mutilek bere burua gaitasun handiagoarekin ikusten dute etorkizunean STEM arlotan lan egiteko neskek baino. Ez da gaitasun maila, beraiek duten autopertzepzio maila baizik. Sakanako industrian lan egiteko interesa luketen galdetu diegunean, mutilek, berriro ere, neskek baino interes handiagoa adierazi dute.

**Beraz, mutilak etorkizunean STEM arloak lan egiteko esparru gisa ikusten dituzte.**

**J.** Oraindik lan asko egiteko dago. Arazoa da asko behar direla eta proiektioek ez dute ematen behar horiek iristeko.

**STEM hezkuntzen inguruan iritzirik badute?**

**J.** Denetarik dago. Baina estereotipoek eragina dute, eta STEMekiko generoak eragina dauka, nesken eta mutilen erantzunen eragiten du.

**Diagnosis jasota, zer ondorio atera dituzte?**

**O.** Aurretik, bi datu adierazgarri aipatu nahi nituzke. Nafarroan Sakana da gazteek soldata onenak dituzten eskualdea. Hori da gazte gehienak industrian daudelako eta, oro har, industrian daudelako soldata onenak. Aldi berean, Nafarroan Sakana da soldata arrakala handiena duen eskualdea. Hori gertatzen da industrian gehienak gizonezkoak direlako eta emakumezkoak industrietatik kanpo daudelako. Hori STEMetara ekarririk, badakigu mundu mailan orokorrak diren ondorio batzuk aterako ditugula,

**"STEMEKIKO ETA IBARREKO LANPOSTU ETA INDUSTRIARI BURUZKO EZAGUTZA OSO HANDIA DUTE"**

baina argazki honek erakusten digu zehazki zein den egoera. Esparru batzuetan agian uste genuena baino egokiagoa da, beste esparru batzuetan ikusi behar da zein lanketa egin behar den. Esaterako, STEMekiko eta ibarreko lanpostu eta industriari buruzko ezagutza oso handia dute. Horrek erakusten digu plan estrategikoan egiten ari garen lanketak eragina duela. Bestetik, beraiek irudikatzen duten genero berdintasunaren egoera ez da egokiena, baina, prozesu baten barruan, ikusten dute aurrerapausoak ematen ari garela. Gainera, daukaten pertzepzioa da Sakanaz kanpo genero berdintasuna txikiagoa dela, eta hemen landuago dagoela. Beraien pertzepzioa da, baina badago non lan egin, eta beraien partetik abiapuntua egokia da.

**Sakanan STEM arloan lan egiteko aukera dago?**

**O.** Bai. Estrategia planaren bitartez ikastetxe jakin batzuekin landu genuen duela urte batzuk, First Lego League proiektuen bitartez. Baina zaila da SGAtik urte urte antolatutako ekintzeekin hori gizartean erabat sakontzea. Ikastetxeetako zuzendari, tutore eta orientatzaileekin bi urte daramagu lanean, beraiek kontzientziatzen ibarrarendako eta gure etorkizunarendako lanketa horiek egitea zein garrantzia duten. Eta beraiek ardura hori hartzea Batxilergoaren aurretik lanketa horiek egiten hastea. Pitteka-pitteka ari gara. Asko dago egiteko, abiapuntua egokia eta erremintak izan ditzakegu, baina landu behar den horretan fokua ondo jarri behar da.

**Ikerketa eskuetan, zer?**

**O.** Gure artean iritziak partekatu behar ditugu. Jardunaldi eta etorri zirenei balorazioa eskatu genien. Zer ekintza konkretu egin daitezkeen. Badirudi bi urteko epean lan egiteko aukera izanen dugula. Lanean jarraituko dugulako, beharbada ikastetxeekin hori lantzeko komuneko proiektu baten bidez.

**Elhuyarren lana bukatu da?**

**J.** Diagnosis abiapuntua izan da. **O.** Arlo honetan egon gaitezkeen eragile guztiak bilera batera deituta gaude abenduaren 12an. Mahaiaren gainean dauden proposamenei forma ematen saiatuko gara. Elhuyarren eskutik lana gustura egin, eta ongi egin dugu. Edonon partetik interesa badago, jarraituko dugu.

**LAN-POLTSAK BERRITZEA** ANDRA MARI IKASTOLA

Etzarri Aranazko ANDRA MARI IKASTOLAK hurrengo lan-poltsak berrituko ditu ordezkapenatarako:

**GARBITASUNEO LANGILEAK eta JANTOKI-GARRAIORAKO BEGIRALEAK**

- Eskatzen da:
  - Euskaraz jakitea derrigarrezkoa da.
  - Zehaztu lan-poltsa: Curriculumak bidaltzerakoan zehaztu: "Garbitasuna" edota "Garrakoa eta jantokia".
- Curriculumula bidaltzeko helbidea: [etzarri@ikastola.eus](mailto:etzarri@ikastola.eus)

Zalantzen bat izanez gero, gurekin harremanetan jarri:  
[www.andramariikastola.eus](http://www.andramariikastola.eus) / 948 460 286  
EPEA: AZAROAREN 25ETIK ABENDUAREN 4RA

**EgurRE**  
ETXETIKO EGURRA  
ETA PELLETA

**ETXEKO ATERAINO**

662 11 77 45



# Ezinbesteko liburua, bueltan

Rafael Carasatorre Vidaurrek 'Barranca-Burunda' berrargitaratu du. Argitalpen berrian eduki gehiago sartu du ikerlari etxarriarrak, ia orri kopurua bikoiztuz. Ibarra ezagutu eta ulertzeko funtsezko liburua da

**Alfredo Alvaro Igoa** ETXARRI ARANATZ Ibarreko Erdi Aroko despoluzioaren, hiztegiaren eta toponimiaren ikerketa bat da *Barranca-Burunda* liburua. "Aizkorbe eta Ziordia arteko espazioari buruzko lerro orokor batzuk markatzeko" asmoz idatzi zuen liburua Rafael Carasatorre Vidaurrek. Orain berrargitaratu du, liburua agortuta zegoelako eta jendeak eskatzen ziolako. Liburua 560 orri izatetik 1.100 izatera pasa da, opatutako dokumentaziotik eduki berriak txertatu baititu ikerlariak. Esaterako: Aralarko toponimoen bikoitza dago, etxe izen gehiago, zenbait abizenen etorrera (zein etorri zen, noiz eta ogibidea, guztien informazio iturria zehaztuta)... Gaineratu duenez, "dagoeneko nahikoa liburu-kote bada, eta zenbait gauza ez dira sartu: izen txiki batzuk, esaera batzuk..."

Gauzak ongi, liburuak osagari grafikoa izanen du eguberrietan. Izan ere, Carasatorrek 200 irudi dituen albuma argitaratu du. "Liburuan irudiak sartuz gero, garestiagoa eta orri pila lirakeelako". Konponbidea albuma izan da. Haietan daude, esaterako, etxeak, armarriak, zubiak, bideak... Albumaren asmoa da "aiton-amonak ilobekin irudiak ikustea eta kultura partekatzea. Zeren aiton-amonen jakintza ez da ilobengana iristen, ez direlako haiekin azienda zaintzera joaten, nekazaritza aldatu da... Horretarako aitzakia da".

## Zergatia

Carasatorrek esan duenez, "liburuaren arrazoia ibarra da, lurraldea azaldu dute. Artxiobak eskualde bati buruz dagoen ezagutza zein den jakiteko balio



Rafael Carasatorre Vidaurre eta Dena Pascual Etxarri iloba. UTZITAKOIA

dute. dauden bitartekoak artxiobak dira. Baina toponimia bizirik dagoen edo bizirauten duen artxioba bat da". Horregatik,

**"LIBURUAN LURRALDEA AZALDU DUT. BLOGA SUBJEKTUA, HAN BIZI DENARI BURUZKOA DA"**

"lurraldea azaltzeko, toponimia eta erabiltzen den hizkuntza erabili nituen. Liburuan langaia hizkuntza, toponimia, da".

Carasatorrek liburua lan oso baten zati gisa hartzen du. Liburua lurraldeari eskainita dago. *Documenta Navarra* blogaren arrazoia, berriz, subjektua da, han bizi izan den pertsona da, "lurralde hori bizitzeko sozializatu duena: zubiak egin dituen,

hautetsiak nola aukeratu dituen, nola erabili du lurraldea garbitokiak edo olak eraikitzeke, herrietako kontuak, txondorrek egiteko, hartzak edo otsoak ehitatzeko, epaiketak..." Halakoak jasotzen dira blogean. "Bukatu gabe dago, erdia baino pixka bat gutxiago dut egina". Uharteko Arakil eta Arañaz Elkarteari buruzko agiriak sareratzea falta zaiola jakinarazi du, "agiri gehien horietaz dut". Horretaz aparte, festekin, kulturarekin eta Aralar eta Urbasa-Andia mendiekin lotura duten lan monografikoak dira

Lehen edizioa egiteko ibarreko herri bakoitzean kolaboratzaileak izan zituen Carasatorrek. Hamar urte behar izan zituen egileak liburua ontzeko. "Herri guztietan zortekoa izan nintzen eta jende onarekin egin nuen topo. Honetaz eta hartaz hitz egiten genuen. Nik nekiena esaten nuen eta haiek zekitena esaten zidaten. Batez ere lurraldea ikertzeari erreparatzen nion, hori zen helburua". Horretarako desagertutako herriei erreparatu zien. "Baina ez zen erraza izan. Gaur egun, oraindik ere, zenbait herri non dauden ez dakigu. Ermita bat tokiz aldatzen badute, herri haren Erdi Aroko hilerria non dago? Hori kasu bat. Bitan opatu dut Etxarri Aranazko Udalaren eskaera Iruñera. Udalerrian zein herri desagertu ziren jakin nahi zuten, eta ez zuen erantzunik jaso. Herrian bertan ez zekiten, eta ez zen denbora asko pasa desagertu zirenetik. San Adrianen zein herri zegoen? Ez dakigu. Santa Kitz ermita non zegoen? Zein herri zen? Kiriko da, Etxarriko patroia. Beste batzuk non zeuden edo gutxi gorabehera non zeuden badakigu".

## Toponimia

Carasatorrek azaldu duenez, "espazio bat denbora jakin batean menpean duen gizarte batek sortzen ditu toponimoak, eta erreferentzia batzuk behar ditu. Toponimok sortu, gelditu eta sortu duen gizartea gainditzen du. Zenbaitetan garatu egiten da". Arbuzuko Zupate toponimoren adibidea jarri du. "Ez dakigu zer esan nahi duen. Baina duela 400 urteko dokumentu zaharretan oso ongi ulertzen da: Zugarateko gurutze". Ikerlariak gaztigatu duenez, "dokumentazioa begiratu gabe toponimoen esanahia jakitea oso arriskutsua da. Horregatik, toponimo zaharren esanahia hobe ulertzen da".

Nabarmendu duenez, "esanahia ezagutzen ez ditugun toponimoak dira garrantzitsuenak, gure kulturari ekarpen berriak egin baitiezaiekete. Hizkuntzak toponimian dituen sekretuetan dago aberastasuna, interpretatzeko nahikoa gako daudenean aterako da aberastasun hori. Mitxelena esaten duenez, ziurrenik, urteak kostako da. Beraz, itsuka lan eginen dugu, esaten dutenaren zain". Adibidea eman du: "Urdiango Saraben belarrak hartu eta Lizarrara eramaten baditu han oihalak tindatzeko, ez dakigu zer belar diren, baina litekeena da belar horren izena toponimoren batean egotea, eta hori artxioba bateko agirian". Azpimarratu duenez, "gaur egun toponimiaren arloan itsuka lan egin behar da. Gaineratu duenez, "toponimia kontu delikatua da, ezin da arinkeriatan ibili". Carasatorrek azaldu duenez, "Mitxelena jarrera zen: frogatu daitekeena bakarrik ziurtatu daiteke". "Beraz, gainontzekoa, isildu. Esaten denarekin kontu handia izan behar da".

**PORROTX ETA MARIMOTOTS**

Abenduaren 3an  
17:00etan  
Irurtzungo kiroldegian

Sarrerak salgai:  
Pikuxar  
Estankoa  
Martxueta  
Maimur (Leitza)

aizpea



## KOLABORAZIOA

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

## Sakanako lexia konposatuak (IX)

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

..., *ez mundu!* Etxarri Aranatzen barra-barra entzun zitekeen duela gutxi arte. Ez ezer, ez inor. Zerrenda baten bukaeran, hura erabat itxirik uzteko erabiltzen da. *Gaur bazkaltzen ez da yon ez aitte, ez ama, ez aneye, ez mundu!* (Gaur bazkaltzen ez da egon ez aita, ez ama, ez anaia, ez mundu!) *Etxarri Aranatz: beste 700 baietz!* bertso antzerkian, horrela ageri da: Ze gobernadore ta gobernadore ondoko! *Emen ez yau bier ez errege, ez gobernadore, ez mundu!* (Zer gobernadore eta gobernadore ondoko! Hemen ez diagu behar ez errege, ez gobernadore, ez mundu!) *Iruña-Veleia aferaz ez da inor kezkatzen, ez PNV, ez Bildu, ez mundu!* Gaztelaniaz erabiltzekotan "*ni nada/nadie*" edo "*ni ostias!*" erabiliko litzateke.

*Ez naiz banaiz ari izan/ibili, Nahitxu-nahitxu ari izan/ibili.* Aranatzen eta Arakilen izan dira erabiliak. Ahuleziak jota ari izan eginkizunen batean. Ozta-ozta, juxtu-juxtu ari izan zerbaitean. Zenbait gauzekin ere erabiltzen da. -Jo gooti, Frantxiko! -Ez tet uste, gaurkuen bintzet. Eneiz baneiz naille bierko ta, eztule ta mukiye daayotela! (-Jo gogotik, Frantxiko! -Ez dut uste,

gaurkoan behintzat. Ez naiz banaiz nabil beharko eta, eztula eta mukia daridala!) Sube eneiz baneiz daallenien, ezpal batzuk bota, tirue zabaldu eta ikuskuek nola artuko deen! (Sua ez naiz banaiz dabilenean, ezpal batzuk bota, tiroa zabaldu eta ikusiko duk nola hartuko duen!) Emen ai neiz neixu-neixu, erabat aulduik noo ta! (Hemen ari naiz nahitxu-nahitxu, erabat ahuldurik nago eta!) Azken hau ere erabiltzen zen zerbait lasai-lasai eta gehiegi sakondu gabe egin edo esateko. Gaztelaniaz "*superficialmente, lo más fácilmente posible*" adieraziko litzateke.

*Egarriak jo/eman.* Sakana guztian zegoen zabaldua. Egarriak akabatzen egon, egarri izan. Lizarragako hiztegian (160) honela dakarte: «Egarriye sartu, egarriyek jo, egarriyek eman. Entrar sed. (...) *Egarriyek eman duut.* Me ha entrado la sed» *Egarriyek jota allatu duk eta itturriya sekatu dik iya-ia!* (Egarriak jota ailegatu duk eta iturria sikatu dik ia-ia).

*Eta ez + aditz laguntzailea, + bada, + aditza,* Sakana osoko euskal hizkeretan erabilia. Ustekabean, harridura sortuz, gertatzen den zerbait adierazteko. Ezezko aditzondoak ez du ezetza

adierazten, alderantziz, ekintza gertatu izana azpimarratu baizik. *Eta etziyan, baa, ostutzen arrapatu eta an bertan tirokatu!* (Eta ez zuen, bada, lapurtzen harrapatu eta han bertan tirokatu!). *Zu, ez zeen, baa, ezee esan bee ataye txiki-txiki ein eta aldein!* (Zu, ez zuen, bada, atea txiki-txiki egin eta alde egin!) Gaztelaniaz ere entzun izan dugu euskaratik zuzenean itzulia: "*¡Oye, y no va y...!*"

*Egoki ailegatu.* Aranatzen, behintzat, erabilia izan da. Momentu edo modu onean gertatu. Hurrengo esaldiak Etxarri Aranazkoak ditugu; bigarrena SHDtik (95) hartua: *Ezin egokiyoo allatu zikiek oporraldiye, erabat lur jota niok ta!* (Ezin egokiago ailegatu zaidak oporraldia, erabat lur jota nagok eta!) *Egoki asko allaatu zikiyok aneye!* (Momentu onean ailegatu zaiok anaia!) Gaztelaniaz "*venir de perlas, a mano*" erabiliko litzateke. Lizarraga Ergoieneko euskara liburuan ere horrelaxe dator 'egoki' aditzondoak: "*Lanien oso egoki daki: sabe trabajar bien*".

*Ekotx egin, Kinkifut egin.* Etxarri Aranatzen, behintzat, erabiliak izan dira. Asko jan eta erabat beteta gelditu. Badirudi bigarrenaren osagaiak ingeleseko kinky eta food izan daitezkeela. Lehenak «era edo tamaina ez egokikoa» adieraziko luke eta bigarrenak «janaria». Era ez egokian, gehiegikeria, jan eta edateari egiten dio erreferentzia;



ingeleseko lehen osagaiak, aldiz, sexuarekin du harremana. Baztanen *Zipot egin* erabiltzen dute gauza bera adierazteko. *Gaur eguerdiyen ekotx ein artio jan yau!* (Gaur eguerdian ekotx egin arte jan diagu!) *Bazikonet gogue saardoteire fateko, asierakuek praatu besteik ez eta, ondorien, txuleta kinkifut ein artio jan biiñet!* (Bazeukanat gogoia sagardotegira joateko, hasierakoak probate besterik ez eta, ondoren, txuleta kinkifut egin arte jan behar dinat!) *Atzo kinto egune urai ta, azkenien, kinkifut ein giñuban: gosayaki asi, gio baz-kaldu ta, atzenien, afaye ta guzie!* (Atzo kinto eguna eduki eta, azkenerako, kinkifut egin genian: gosariarekin hasi, gero bazkaldu eta, azkenean, afaria eta gutzi!) "*Comer en exceso, hasta reventar*" erabiliko litzateke gaztelaniaz.

*Elizakoak hartu/eman* Erabilera orokorrekoak ditugu hauek. Oliodura hartu. Hilzoriar dagoen fededunak jasotzen duen azken bedein-kazioa. Lizarragako hiztegian (166) ere: «*Elizekuek artu, elizekuek eman* 'tomar/ dar la extremaunción'» Eta Izagirrek (59) Altsasun ere bai, bigarren adibidean ikus daitekeen moduan. Horrela dago jasoa EHN adibideetan, baina ez azpisarrera moduan: "*Ez dira elizakoak hartu gabe hilko. Apaiza non bizi zen galdegin zuen, aita txarki zuela eta, elizakoak emateko*" *Elizakuk eman, dar el viático.* (Elizakoak eman.) Gaztelaniaz "*dar la extremaunción*".

*Elkarren modukoak izan.* Hau ere erabilera orokorrekoa da. Berdintsuak izan, izaera berekoak izan. Bata bestearendako berdina izan. *Abil kontus oin tartien sartu beño len, alkarren moukuek ttun eta!* (Habil kontuz horien

tartean sartu baino lehen, elkarren modukoak ditun eta!) Gaztelaniaz "*ser tal para cual*" erabiltzen du.

*Eloa egin.* Etxarri Aranatzen erabiltzen da egun oraindik. Gustua egin. Oso gustuko dugun zerbait gutxienik dastatu, probatu. Nahia adina ez bada ere, gustuko dugun zerbait gutxienik probatu edo gozatu. *Aurten zize gutxi artu zittubau, beye gutxines elue ein yau!* (Aurten ziza gutxi hartu ditiagu, baina gutxienez eloa egin diagu!) *Elue eitteko sikia opatuko bagiñittu ontuatzuk!* (Eloa egiteko sikira opatuko bagenitu onddo batzuk!) Gaztelaniaz "*hacer el capricho, probar algo al menos*".

*Eltzeak egitera joan.* Aranatzen eta Burundan erabilia izan da. Hil Bizitzaren amaiera adierazten du. Horrela dakar *Nafarroako Euskaldunen Mintzoak* (1990) lanean Urdiainen jasotako grabaketan eta transkribaturik ere ageri da *Euskalki literarioak* liburuan (1992, 122): *Ya guk hobena botatu ugu. Gurekin probetxu gutxi do; ya... leno esaten zaiena, denboa gutxio laister eltzik itea, kanposantur eltzik itea, esaten zabien lenokok, eta gu re laister martxa hortan.* (Dagoeneko guk hoberena bota dugu. Gurekin probetxu gutxi dago; dagoeneko... lehenago esaten zutena, denbora gutxiko laster eltzeak egitera, kanposantura eltzeak egitera, esaten zuten lehenagokoek, eta gu ere laster martxa horretan.) Hurrengo esaldia Etxarri Aranazko hizkeran: *Jendiek ez padau kuidedo geyo uraitzen, laster fanen geittuk denok eltziek eittia!* (Jendeak ez badu kuidado gehiago edukitzen, laster joanen gaituk denok eltzeak egitera!).

## DUELA 25 URTE...



## Etxe banaketa Etxarrin

Etxarri Aranazko Udalak babes ofizialeko 28 etxebizitzak banatu zituen. Hala ere, jabeek giltzak 2001ean jasoko zituzten. 48 pertsonak eman zuten izena, baina azkenean denek ez zuten interesik azaldu eta azken etxea 41.ak eskuratu zuen. Etxeak Aritzetabide kalean eraiki zituen Promociones Zubeztia enpresa altsasuarrak. Etxebizitza gehienek 90 metro karratu zituzten, baina 79 eta 81 artekoak ere bazeuden. Hamarren parean lur zati bat jarri zen.



# Aralarrek guardetxe berria du

Hamabost urteren ondoren, Aralar mendiak atzera ere basozainendako etxea du. Guardetxeak erraztu eginen du Aralar mendiko baso aprobetxamenduen eguneroko kudeaketa, bai zurezko baliabideena, bai abeltzaintzakoak edo erabilera turistikokoak

## Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Guardetxe berriak 156 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia du, horietatik 113 dira erabilgarriak. Eraikinak erabilera anitzeko gela (38 m<sup>2</sup>), basozainaren bulegoa eta gela, komuna, turismo informazio bulegoa eta biltegi pare bat ditu. Eraikuntza jasagarriaren irizpideen arabera jaso da. Erabat autonomoa da, A mailako kalifikazio energetikoa du, energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa kontuan hartuta, eta baita A mailakoa ere, karbono dioxidoaren isuriei dagokienez. Eraikinak konfort termiko handia du, eta zubi termikoen eta infiltrazioen isolamendu eta



Guardetxearen barruko ikuspegia ganbaratik. UTZITAKOIA

kontrol maila handia. Euri ura biltegi batean jasotzen du, ondoren eraikinean erabiltzeko.

Bestalde, hurbileko materialekin eraiki da. Izan ere, erabilitako egurraren %80 ziurtatua da eta, neurri handi batean, Aralar bertakoa, batez ere, basoko alertze eta pinu egurra, birpopulaketetatik datorrena. Era berean, harriak eta hurbileko materialak erabili dira horma eta hesietarako. Eraikin berria jasotzera 465.000 euro bideratu ditu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak.

Mendiaren kudeaketaz Aralar-ko Elkarte arduratzen da, Araxes eta Sakanako hemeretzi herrik osatuta. Bere lehendakari Oihana Uribeetxeberria Garmendiak azaldu duenez, "guardetxe berria aurrerapauso bat da, gutxieneko lan baldintzak betetzen dituen lanerako eremu bat izanen dugu orain". Azaldu duenez, han elkar-teko eta gobernuko basozainek lan egiten dute. "Eta elkar-teak behar dituen kudeaketak edo bilerak egiteko ere erabiliko du. Garai batekoa zenaren kontrara, guardetxe berria ez da publiko-erendako eraikin bat". Guardetxea

izan ez den hamabost urtetan basozainen bulegoa ibilgailuak izan direla gaztigatu du.

Gobernuarekin guardetxez hitz egiten jarraitu beharko du elkar-teak, jasotakoaren ondoan erabilera publikorako beste eraikin bat jasotzea aurreikusita baitago. Uribeetxeberriak azaldu duenez, "proiektu hori definitu gabe dago. Horren inguruan lanean hasteko asmoa azaldu genion gobernuari mustutze egunean". Esan duenez, "bileretan Aralar eta bere erabilera anitzak jarriko ditugu mahai gainean, nola kudeatu nahi ditugun kontuan hartuz ingurumena, abeltzaintza, bisitarien harrera eta abar. Helburu horiek betetzeko bigarren eraikinak egiteko bat izan dezake".

Lehendakariak gaineratu duenez, "Aralar osotasun bat bezala bizi dugu. Guardetxe da Aralar-ko Kontserbazio Bereziko Eremurako sarbidea, bihotza eta erdigunea, Aralarren erabilera anitzak daudelako: mendia, mikologia, abeltzaintza, basogintza... Horretara doazen guztiak guardetxe apartekalekuan elkartzen dira. Toki estrategikoa, historikoa eta garrantzitsua da.

# HEMENGOA, ZURETZAKO

Venta de proximidad

Venta directa

Hurbileko salmenta

Salmenta zuzena

**Kontsumitu eta saldu km 0**  
**Nafarroako elikagaiak, Nafarroan**

[www.localtokikoa.es](http://www.localtokikoa.es)

Gobierno de Navarra

INTIA

948 013 040  
circuitoscortos@intia.es

# Izan giltzarri!



**Castillo Suarez Garcia** Euskaltzaina

Kaixo, Castillo Suarez naiz, Euskaltzaina naiz eta, aipatu nahi dizuet zeinen garrantzitsua den Guaixe izatea. Izan ere, askotan esaten da, Sakanan bizi nahi dugulako, bertan ikasi, bertan lan egin. Baino oso inportantea da ere bai bertatik gure berri ematea, hau da, eskualdea egiten gaituen zer-bait bada, hizkuntza da eta oso inportantea da Guaixek egiten duen lana. Gure postontziak, gure uhinak, gure ordenagailuak, gure sakelakoak euskaraz betetzen ditu eta gainera bertatik kontatzen digu, bertatik ematen digu gure berri. Horregatik, izan giltzarri! Eta egin zaitetz Guaixeko bazkide!



[guaixe.eus/  
kideak](https://guaixe.eus/kideak)



## AGENDA

## EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI

## ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN.

Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / [kultu-ra@guaixe.eus](mailto:kultu-ra@guaixe.eus)

## OSTIRALA 29

## UHARTE ARAKIL Tailerra.

Indar tailerra emakumeentzat, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak sustatutako eta Sakanako Mankomunitateak eta UharTE Arakilgo Udalak antolatuta. Izena ematea: [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus) epostan edo 610 812 888 (Itziar) telefonoan eman daiteke izena. **17:00etatik 19:00etara, udaletxean.**

## ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate zerbitzua. **17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunean.**

## ALTSASU Hitzaldia.

Carolina B. Garcia-Esvez arkitektuaren *Itzalik gabeko mundua. Artearen paradoxa kopia edo asmakizun gisa* hitzaldia, Berta Viterik aurkeztuta eta gidatuta, *+Encuentros/Topaketak* programaren barruan. Gaztelaniaz. Doan edukiera bete arte. **18:30ean, lortia kultur gunean.**

## ETXARRI ARANATZ Aurkezpena.

*Acción Antifascista. Historia de un movimiento alemán de izquierda radical* liburuaren aurkezpena, Sare Antifaxistak antolatuta. **19:00etan, gaztetxean.**

## ITURMENDI Hitzaldia.

Euskararen egoera Sakanan eta Nafarroan, Euskal Herriaren Euskaraz hitzaldia. **19:00etan, Aitzkozar elkarte.**

## ALTSASU Elkarretaratzea.

*Etxera. Azken ostirala.* **19:30ean, udaletxearen aurrean.**

## IRURTZUN Elkarretaratzea.

*Etxera. Azken ostirala.* **20:00etan, San Martin kalea.**

## ETXARRI ARANATZ

## Elkarretaratzea.

*Etxera. Azken ostirala.* **20:00etan, plazan.**

## ARBIZU Elkarretaratzea.

*Etxera. Azken ostirala.* **20:00etan, plazan.**

## ITURMENDI Bertso afaria

Aroa Arrizubieta eta Eneko Lazkoz bertsolariekin bertso afaria. Izena eman: Aitzkozar elkarte. **21:30ean, Aitzkozar elkarte.**

## LAKUNTZA Kontzertuak.

Kontzertuak: 1312 The Church Back Boys, Exprimidos eta Mandroll taldeak. **22:00etatik, Sorginak tabernan.**

## LARUNBATA 30

## ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Irañetako iturburua, 45 kilometro. **09:00etan, Zumalakarregi plazan.**

## UNANU San Andres eguna.

**13:00 Meza.**  
**14:30 Bazkaria, Denok Bat elkarte.**

## ETXARRI ARANATZ Eguna.

Egun Artistikue, Etxarriko Gazte Asanbladak antolatuta. **12:30-13:30 Haurrendako tailerrak, plazan.**  
**17:00-21:30 Arte eta artisau azoka, plazan, eta herri grafitia, kultur etxean.**

## ALTSASU Gazte agenda.

Proposamenak: lehenbailehen esan antolatu ahal izateko. **18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

## A25 OLATZAGUTIA Antzerkia.

*La Mona y la Maja (o viceversa)* antzezlanean emanaldia: Bakoitzak bere erara pintatutako bi emakumeak irudikatzen saiatuko dira. Hala ere, ez dute oso argi nork ordezkatzeko duen nor eta horrek nor baino nor eragingo du majaren eta monaren artean, ea nor den ederragoa eta nor majagoa. Gaztelaniaz. Olatzagutiko Udalak

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

## Gladiator 2

Igandea 1: 17:00  
Asteartea 3: 19:00

## Central Parkeko Heroiak

Igandea 1: 17:00

## Emilia Pérez

Osteguna 5: 19:00  
Igandea 8: 19:30  
Astelena 9: 19:00

## Dalia. El libro rojo

Igandea 8: 17:00

## Here

Osteguna 12: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

## Las chicas de la estación

Igandea 1: 19:00

## Bird

Osteguna 5: 19:00  
Igandea 8: 19:30

## Pídeme lo que quieras

Osteguna 12: 19:00

azaroaren 25aren harira antolatutako ekimena, Sakanako Mankomunitatearen egitarauaren barruan. Sarrerak: aurretik, 6 euro; egunean bertan, 8 euro. **19:00etan, kultur etxean.**

## ALTSASU Kontzertua.

*Ökologie Garaikideak* Musika Garaikidearen Zentroraren diziplina anitzeko proiektuaren emanaldia; musika abangoardista eta ikus-entzunezko teknologia eta teknologia eszeniko berriei lotutako esperimendazio akustikoa batzen dituena. *+Encuentros/Topaketak* programaren barruan. Sarrerak doan, gonbidapenarekin. **19:30ean, lortia kultur gunean.**

## ALTSASU Bakarrizketa.

*Haritza Comedy.* Victor Amilibia umoregilearen bakarrizketa. **22:00etan, Haritza tabernan.**

## OLATZAGUTIA Jaialdia.

*Novemberfest.* K-Style, Aroniko, Eduardo Diaz, Txen eta Mc Flurry disko jartzaileekin. Sarrerak: 7 euro, bertan salgai. **23:00etan, Maisuenea gaztetxean.**




**A25 ALTSASU Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko fikziozko liburu erakusketa irakurketa gida, liburutegiak antolatuta.**

*Azaroan. Asteleneetik ostiralera 14:00etatik 20:00etara. Liburutegian.*

## ALTSASU Itoiz Artozki Artezki erakusketa.

*Abenduaren 10era arte. Asteleneetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara eta igandetan 18:00etatik 20:30era. lortia kultur guneko erakusketa gelan.*



**IRURTZUN Bi anaia. Pintura eta eskultura erakusketa Jose Antonio eta Javier Perez Fabo artisten erakusketa. Pikuxar tabernan.**



UTZITAKOIA

**URDIAIN Marrazki bilduma: Bixen Gallo, Tomas Etxarri, Pili Leal, Emiliano Ramos eta Joxean Donloren marrazkien erakusketa.**

*Abenduaren 22ra arte. Kaluxa tabernan.*



UTZITAKOIA

BAZKIDE ZOZKETA  
Azaroko saridunak

Arantxa Armendariz Cantalapiedra (Altsasu)

Alazne Juaniz Ezpeleta (Etxarri Aranatz)

Irene Lopez de Goikoetxea Ollokiegi (Urdiaín)

Joseba Andoni Beltza Bengoetxea (Etxarri Aranatz)



**Erviti** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | [info@aluminioserviti.es](mailto:info@aluminioserviti.es)

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren berriztatze eta birgaitzea

## IGANDEA 1

### ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: San Julian eta Marutegi, 42 kilometro.  
**09:00etan, Zumalakarregi plazan.**

### OLATZAGUTIA Film laburrak.

*Nafarroa, zinema lurraldea* jaialdiaren hamar film labur finalisten emanaldia, tartean Olatzagutian grabatutako Ana Barberanen *Amándala* film laburra. Proiekzioan lan gogokoan bozkatzeko aukera izanen da. Sarrerak: 1 euro.  
**18:00etan, kultur etxean.**

## ASTEARTEA 3

### ARRUAZU Antzerkia.

*Burua txoriz beteta* familiarteko antzezlanaren emanaldia, euskaraz: Liriak eta Wadak abentura eta bidaien istorio zirrargarria erakutsiko dute, non magiak, barreak, emozioak eta intrigak agertuko diren. Munduko aniztasunaren aldeko mezua helarazten du. *Gora gora fest!* Euskarabideak Euskararen egunaren harira antolatutako egitasmoaren barruan. Doan.  
**12:00etan, udaletxean.**

### IRURTZUN Ikuskizuna.

Porrotx eta Marimotots pailazoan *Ostirala iritsi da!* Ikuskizuna: Gaur egun berezia da eskolan, *Txapas* irakaslearen azken laneguna baita. Harekin bizitutako abenturak eta ikasitako gauza polit guztiak ospatzera datoz Pupu, Lore, Porrotx eta Marimotots herriko lagunekin batera. Basoa, jolasak, eskulanak, kantuak, irriak eta bihurrikeriak ez

dira faltako. *Txapas*ekin beti da ostirala! Aizpea euskara taldeak antolatuta, Irurtzungo Euskal Ekitaldiak egitasmoaren barruan.  
**17:00etan, frontoian.**

## OSTEGUNA 5

### IRURTZUN Bertso afaria.

Amets Arzallus eta Erika Lagoma bertsolariekin bertso afaria, Aizpea Euskara Taldeak antolatuta Euskal Ekimenak egitasmoaren barruan.  
**21:30ean, Pikuxar elkartean.**

## OSTIRALA 6

### ALTSASU Gazte agenda.

Karta jokoak.  
**18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

## LARUNBATA 7

### ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Txurrukupunta, 38 kilometro.  
**09:00etan, Zumalakarregi plazan.**

### ALTSASU Gazte agenda.

Karta jokoak.  
**18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

## IGANDEA 8

### ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Santa Marina, 44 kilometro.  
**08:30ean, Zumalakarregi plazan.**

### ALTSASU Lasterketa.

XLIII Zubeztia Elkarte Lasterketa III Candi Arnanz Memoriala. 10 kilometroko distantzia. Izena ematea: aurretik, [dantzalekusakana.com](http://dantzalekusakana.com); lasterketaren egunean, 5 euro (ordainketa dortsala jasotzean). 18 urtetik 70 urtera. Zubeztia Elkarteak antolatuta, hainbat laguntzaileekin.  
**11:00etan, Gartzia Ximenez kalea, 15 (Zubeztia elkarte).**

### LAKUNTZA Zinema.

*Bizkarsoro* filmaren emanaldia.  
**18:00etan, kultur etxean.**

## ASTELEHENA 9

### ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.  
**12:00etan, udaletxearen aurrean.**

## ASTEARTEA 10

### LAKUNTZA Tailerra.

Joskintza tailerra: Kanzashi, ehunezko loreak (beteta).  
**16:00etatik 19:00etara, Sakanako Mankomunitateko egoitzan.**

## ASTEAZKENA 11

### ALTSASU Literatur solasaldia

Literatura solasaldia: Goiatz Labandibar idazlearen *ZOO* liburuaren inguruko solasaldia, Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak

eta Altsasuko Itsasi euskaltegiak antolatuta.  
**18:30ean, lortia kultur gunean.**

## OSTIRALA 13

### OLATZAGUTIA Irakurle taldea.

Olatziko irakurle taldea: La Trenza, Laetitia Colombani idazlearen liburua. Izena ematea: 948 371 444 edo [bibliola@navarra.es](mailto:bibliola@navarra.es).  
**19:00etan, liburutegian.**

### ETXARRI ARANATZ

#### Bakarrizketak.

*Bakarrizketak* saioa: Amaia Ruiz de Galarreta, Lander Varona, Leo Bueriberri, Joxek Farra eta Asier Galarza bakarrizketariak.  
**22:00etan, gaztetxean.**

## IRAGARKI SAILKATUAK

### HIGIEZINAK

#### ERRENTAN

**Zure autokarabana, karabana edo furgoneta gorde nahi duzu?** Iturmendin, pabiloi itxi batean plazak alokatzen dira, 24 orduko alarmarekin. Deitu! 646 843 579.

### LANA/NEGOZIOAK

#### LAN ESKAINTZA

**Mank-en lan egiteko aisialdi-ko begirale eta kirol monitorea poltsak osatu nahi dira:** Bi deialditan parte hartzeko C1 euskara maila beharrezkoa izango da. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian.

### IKASTAROA

**Helduentzako Euskal Dantza ikastaroa Olaztin:** Informazio gehiago eta izen emateak Olaztin udaletxean.

**Pintura ikastaroa Arbizun:** Hasi berrientzat nahiz sakondu nahi dutenentzat. Asteazkenetan izanen da. Informazioa eta izen emateak Arbizuko udaletxean.

**Pintura ikastaroa Olaztin:** Udalak antolatutako ikastaroaren inguruko informazioa eta inskripzioa [www.olazti.com](http://www.olazti.com) web orrian edo udaletxean.

**Lakuntzan ikasturteko ikastaro eskaintza heldu eta gazteentzat:** Hainbat erakunde antolatzen dituzten ikastaro eta tailerretan izena emateko haiekin jarri behar da harremanetan, edonola ere eskaintza guztien berri [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus) web orrian ikusi daiteke.

**Gimnasia terapeutikoa fibromialgia eta Neke Kronikoa dutenentzako:** Osasuna hobetzeko jarduerak fisiko espezifikoak egingo dira ikastaroak Altsasun, Etxarrin eta Irurtzunen. Informazio gehiago eta izen emateak Sakanako Mankomunitatean (948 464 866) edo AFINAN (948 135 333) telefo-

noetan. Emailaz [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus) helbidera idatziz.

### OHARRAK

**Elkartasunezko bilketa Olaztin:** Abenduaren 12ra arte, goizeko 09:30tik 11:30ra Olaztin kultur etxean, materialak bigarren eskuko azokan salduko dira. Informazio gehiago 648 070 710 telefonon edota [antzartean@sakana-mank.eus](mailto:antzartean@sakana-mank.eus) e-postan.

**Iturmendin mintzakide taldea sortu nahi dute:** Ostegun arratsaldetan, kafetegian bildu eta euskaraz hitz egiteko. Lehengo hitzordua, datorren ostegunean, 17:00etan kafetegian.

**Altsasuko Udalak Eguberrietarako Aisiz blain izena emateko epea zabaldu du:** Izena emateko epea abenduaren 5ean amaitzen da. Informazio gehiago [www.altsasu.net](http://www.altsasu.net) web orrian edo ludotekan bertan.

**Arakilgo egutegirako argazki bila:** Arakilgo Udala 2025 urteko egutegia egiteko Arakilgo txokoen argazki bila dabil. Informazio gehiago Arakilgo Udalean.

**Altsasuko Udalak ikastetxei zuzendutako dirulaguntzak emateko deialdia zabaldu du:** Ikasturte honetan garatuko diren jarduerak laguntzeko da. Dirulaguntza deialdiaren oinarriak eta informazioa [www.altsasu.net](http://www.altsasu.net) webgunean.

**Iturmendiko osasun etxeak telefono zenbaki berria du:** Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo udalek jakinera eman dutenez. Osasun arreta eskatzeko 948 633 038 zenbakira deitu behar da hementik aurrera.

**Arbizuko Utzubar Ekogunean konposta eskuragarri:** Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak gogorarazi du, nahi duen guztiak urte guztian zehar konposta eskuragarri duela bertan. Informazio gehi-

go nahi duenak [info.hondakin@sakana-mank.eus](mailto:info.hondakin@sakana-mank.eus) e-postara idatz dezala edo 900 730 450 telefonora hots egin dezala.

**SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformarekin batera Elkartasun Aktiboa iniziatiba martxan jarri du:** Netanyahu nazioarteko epailean aurrean eramateko, Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpen ekonomiko egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrontean dirua sar dezakezu, edo zure banketxearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMAN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabiltza dirua eman.

**Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan:** Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilgunean Whatsapp aplikazio-ko zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

**Aralarko Santutegiko museoan bisita gidatuak egiteko aukera:** Aralarko Santutegiko museoan ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igan-deetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)



### ABENDUAK 9-13

**10:00** Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

**10:15** Prentsaren azalak

**10:20** Albisteak eta kirolak

**10:30** Hizketan

**11:05** Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

**14:00** Errepikapena

## Hizketan

Abenduak 9 Harrera Elkarte

Abenduak 10 Sergio Goikoetxea, SDOZE

Abenduak 11 Bertso saioa ([Bertsoa.eus](http://Bertsoa.eus))


Abenduak 12 Sheila Malcon, psikologo feminista

Abenduak 13 Agenda berezia





ESKELA



## Pedro Miguel Quintana Ondarra

Maiatzean ama joan zen...gero amona...  
eta orain zu joan zara...  
Bakarrik utzi nauzue...  
bakarrik utzi gaituzue...

**Bakaiku**  
2024ko azaroaren 13an

ESKELA



## Juan Kruz Bengoetxea Saez de Maturana

Zurekin batera auzolanean Altsasu eraiki dugu  
**Herri bazkaria**

ESKELA



## Beni eta Juan Kruz

'Juankruziko'

Betiko gure oroimenean

**Bengoetxea Goikoetxea lehengusu-lehengusinak**

ESKERTZA



## Jesus Mari Miranda Andueza

Une latz hauetan gurekin egon zareten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu

**Zure familia**  
Lakuntzan, 2024ko azaroaren 29an

OROIGARRIA




## Fernando Suescun Ramirez

I. urteurrena  
(2023ko azaroaren 28an hil zen 79 urte zituela)

Eskerrik asko emandako guztiagatik.  
Beti gure bihotzetan

**Zure familia**

OROIGARRIA



## Miguel Granizo Gares

I. urteurrena

Gure oroimenean zaude, Miguel

**Omnioako zure lankideak**



**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€  
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

### JAIOTZAK

- **Ianitz Beltza Fernandez**, azaroaren 21ean Etxarri Aranatzen.
- **Naiara Jimenez Abadiano**, azaroaren 14an Arbizun.
- **Moustapha Hlal**, azaroaren 13an Uharteko Arakilen.

### HERIOTZAK

- **Aurelio Lucas Andrades**, azaroaren 22an Altsasun.
- **Lucia Artus Pariente**, azaroaren 19an Lakuntzan.
- **Jesus Maria Miranda Andueza**, azaroaren 21ean Lakuntzan.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

# IRACHE

## tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## “Betidanik”

☎ 948 19 70 70  
 📧 @Grupolrache  
 📘 Grupolrache  
 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Vilariño, gola ospatzen. ATHLETIC CLUB

## FUTBOLA Maitane Vilariñoren lehen gola Athletic-ekin

Maitane Vilariño Mendinueta olaztiarra pozez gainezka dago. Athletic-ekin fitxatu zuen aurten bigarren taldean aritzeko, baina berehala debutatu zuen F Ligan edo lehen mailan, eta Athletic talde nagusiarekin lehen gola sartu zuen azaroaren 26an, lehoiek Madril CFF taldearekin jokatutako partidaren ostean. Norgehiagoka estua zen, eta Vilariñok husnako berdinketa boleaz sartutako golikusgarriarekin apurtu zuen. Vilariñok aitortu duenez, "ametsak egi" bilakatzen ari da. "Taldea nagusiarekin minutuak gehitzen joate da asmoa, eta 3 puntuak lortzen lagundu ahal izatea eta lehen mailan gola sartzea sekulakoa izan da, amets bat. Oso pozik nago".

# Zabaleta, Martija eta Ezkurdia, ilusionatuta

**PILOTA** Gaur hasi eta martxoaren 30ean erabakiko den 2025eko Binakako Pilota Txapelketan dena eman nahi dute sakandarrek. Elordi, Peio Etxeberria eta Rezusta dituzte bidaide txapelketa luzeena denean, benetako erresistentzia

**Maidar Betelu Ganboa SAKANA**

Abian da pilota txapelketa luzeena, pilotarien erresistentzia jokoan jartzen duena: 2025eko Binakako Txapelketa. Aspeko hiru pilotari sakandarrek parte hartuko dute: Ezkurdiak Rezustarekin osatuko du bikoa, Zabaleta Elordirekin eta Martijak Peio Etxeberriarekin.

**Zabaleta, seigarrenaren bila**

Hirurak kontentu daude egokitu zaien bikoteekin. "Elordirekin berriro jokatuko dut eta oso pozik nago, oso ongi moldatu bainekin elkarrekin" azaldu du Zabaleta. Horren ongi, 2023ko Binakako txapelkunak izan zirela. Kontuan hartzeko bikotea dira. Zabaleta egungo txapelketa da Peio Etxeberriarekin, eta ikusgarri ari da. Binakako bost txapela ditu, Maizek, Retegik eta Martinez de Irujok bezala, eta seigarrenalortuko balu, sei dituen pilotari bakarria izango litzateke. Erroka ederra.



Elkarren kontra ariko dira gaur. ARTXIBOA

Martija pozik dago Peio Etxeberria bidaide izango duelako. Bikote gorrak osatzen dute, arrokatsua, oparirik egiten ez duena. Biek Binakako txapela badute, Altunarekin eta Zabaletarekin lortutakoa, eta elkarrekin

lortzeko nahikoa dohain eta baliabide badituzte. Martijak aitortu zuen "oso eroso" sentitzen dela Etxeberriarekin jokatuko duelako. "Harreman ona dut. Sasoi betean dago, agerikoa da".

Ezkurdia "gustura eta pozik" azaldu da. Azkeneko bolada gorrari buelta eman nahi dio arbizuarrak, eta ezkutari sendoa du horretarako, Rezusta. Indarra eta sasoia badute. Ongi hastearren garrantziaren jakitun, horretan saiatuko dira. Biek aurretik irabazi dute Binakakoa, baina lehen aldiz ariko dira elkarrekin txapelketa honetan.

Lehen jardunaldian, Ezkurdia-Rezustak Elordi-Zabaleta izango dituzte aurkari gaur Beasainen. Larunbatean, Eibarren, Altuna-Aranguren eta P. Etxeberria-Martijaren arteko partida jokatuko da, eta Lizarran Artoia-Mariekurrenaren eta Laso-Iztuetaren artekoa. Igandean, Basaurin, Jaka-Imaz eta Peña II.a-Albisu lehiatuko dira.

## EMAKUME PREFERENTEA

**9. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Gazte Berriak - Altsasu 4-4

**SAILKAPENA**  
EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1	Altsasu	20
2	Gazte Berriak	19

**HURRENGOA**  
ABENDUAK 15, IGANDEA  
17:45 Altsasu - Idoya (Dantzaleku)

**Altsasu liderrak, bi aste atseden**

Altsasuk launa berdindu zuen Gazte Berriarekin, eta lidergoari eutsi zion.

## GIZON ERREGIONALA

**10. JARDUNALDIKO EMAITZAK**  
Altsasu - Berriozar 3-0  
Etxarri Aranatz - Aurrera 3-1  
Lagun Artea - Beti Onak B 4-0

**SAILKAPENA**  
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	Altsasu	30
3	Etxarri Aranatz	24
7	Lagun Artea	18

**HURRENGO JARDUNALDIA**  
AZAROAK 30, LARUNBATA  
15:45 Etxarri - Alde Zaharreko Kluba (San Donato)  
16:00 Lagunak B - Lagun A. (Barañain)  
ABENDUAK 1, IGANDEA  
15:30 Asdefor - Altsasu (Amigo)

**Altsasu lider, hutsik gabe**

Altsasuk bide onean jarraitzen du, galtzea zer den jakin gabe. Etzi sailkapenean azkena den Asdeforren kontra lehiatuko da.

**Etxarri, primeran**

Etxarri beste garaipen bat lortu zuen Aurreraren kontra. Iruñeko Alde Zaharreko Klubarekin bide beretik segi nahi du.

**Lagun Artea, txukun**

Lakuntzako taldeak garaipenaren xendan jarraitzen du. Lagunak B arierio zuzenaren kontra irabaztea oso garrantzitsua litzateke.

## ARETO FUTBOLA

### Azken jardunaldiak denetatik utzi du

Hirugarren mailan Aralar Mendik 0-2 galdu zuen Ardoirekin. Universidad de Navarraren kontra abenduaren 12an jokatuko du. Lehen maila autonomikoan Arbizu liderrak (Ribera de Navarrari 4-0 irabazi) Mutilbera du arierio gaur Aranguren. Altsasu laugarren da (Anaitasunari 2-3 irabazi) eta igandean Los Sauces hartuko du Zelandin, 12:00etan. Emakumezkoen lehen senior mailan Xotak (Orvina liderrarekin 2-1 galdu) igandean Cortes hartuko du Atakondan.

## Estarriaga, Congil eta Garcia de Eulate, Obanosko podiumean

**ATLETISMOA** Nagore Laffage Memorialeko azkarrenak izan ziren hiru sakandarrek

**M.B.G SAKANA**

Igandean IX. Genero Indarkeriaren Kontrako Lasterketa Solidarioa jokatu zen Obanosen, Nagore Laffage Memorialeko sakandarrak lasterketako protagonista nagusiak izan ziren, hasieratik aurrea hartu eta lehenak izan baitziren. Podiuma euren doko izan zen. Asier Estarriaga etxarriarra gailendu zen (22:15), Ekhi Congil etxarriarraren (22:22) eta Sergio Garcia de Eulate altsasuarraren (22:29) aurretik. Ivan Sobredo zazpigarren sailkatu zen (23:11). Emakumezkoetan

Alazne Irigoien gailendu zen (28:28). Erkuden Larraza bosgarren sailkatu zen (32:30).

**Zubetzia Lasterketa, ate joka**

Urtero moduan, abenduaren 8an, 11:00etan, XLIII. Zubetzia Elkarrekin Lasterketa - III. Candi Arnanz Memorialeko jokatuko da, Altsasuko herri gunean prestatutako 10 kilometroko proba. San Silvestrea prestatu eta egun polita pasatzeko lasterketa animatua da, askorendako proba kuttuna. Izena ematea zabalik dago Dantzaleku Sakana klubeko webguru-



Asier Estarriaga, gorenean, Ekhi Congil eta Sergio Garcia de Eulatekin. UTZITAKOIA

nean (3 euro), baina egunean bertan izena emateko aukera egongo da (5 euro). 18 urtetik 70 urterainoko proba da.

Zubetzia Lasterketak Sakana Mankomunitateak antolatutako XVII. Sakanako Atletismo

Kopa-Lasa Kirolak Saria erabakiko du. Momentuz, emakumezkoetan Erkuden San Martin, Noemi Cordero eta Maite Zabaleta daude buruan, eta gizonezkoetan Ekhi Congil, Aritz Etxeberria eta Imanol Guerrero.



**Maidar Betelu Ganboa** ETXARRIARANATZ  
Asier Estarriaga Navarro korrikalari etxarriarra aspaldiko ezaguna da. Denboraldia goitik hasi du, Behobia-Donostian eta Valentziako maratoi erdian aurretik zituen markak hobetu baitzituen. Aurtengo helburua zein den oso argi du: apirilaren 27an jokatu den 45. Londongo maratoia. Denboraldi guztia proba ongi prestatzera planifikatu du.

**59. Behobia-Donostian (20,196 km) lehen sakandarra izan zinen. 27.473 korrikalariren artean 31. postuan sailkatu zinen (1:07:56), marka ona.** Behobia-Donostia denboraldi hasieran markatutako helburuetako bat zen, eta egindako lanarekin kontentu geratu naiz, nire marka apurto dudalako. Markarik onena 2021ekoa nuen (1:08:50), eta aurtengo minutu batean gainditu dut, ia 200 m gehiago zirela kontuan hartuta, ongi.

**Denbora horietan ibiltzea espero al zenuen?**

Banekien dena ondo joanez gero hor ibiliko nintzela, batez ere bi aste lehenago, urriaren 27an Valentziako maratoi erdian (21 km) aritu nintzelako eta bertan ere nire marka hobetu nuelako (1:10:22). Valentzian guztia laua da, eta errazagoa da erritmoak mantentzea. Erloju bat bezala zoaz. Aldiz, Behobia-Donostia gorabeheratsua da. Hala ere, bi proben artean egindako marketan ez dago alde handirik.

**laz ez zinen Behobian aritu.**

Ez, joan zen urtean helburu nagusia Valentziako maratoia (42 km) nuelako. Abenduko lehen asteburuan izaten denez, Behobiara joateak maratoirako prestateta sakrifikatzen zuen, eta alde betera utzi nuen.

**Beste Iruña klubeko korrikalaria zinen, hor lortu zenituen zure lehen-dabiziko garaipenak, baina gero Hiru-Herri klubera joan zinen.**

Entrenamendu kideengatik izan zen gehienbat. Egun gehienek bakarka entrenatzen dugu, bakoitzak bere bizia eta ordutegiak dituelako eta guztia koadratzea nahiko zaila izaten delako, baina iaz bizpahiru sakandar zeuden Hiru-Herri eta horregatik aldatu nintzen.

**Ohikoa da zuek Dantzalekun entrenatzen ikustea.**

Bai, hiruzpalau sakandar elkarrean Dantzalekun asko entrenatzen dugu, eta bestela Burlatan, joan zen urtean berriutako Hiru-Herriko Burlatako pistan.

# "Aurtengo helburu nagusia Londongo maratoia da"

**ASIER ESTARRIAGA NAVARRO KORRIKALARIA**

**ATLETISMOA** Korrikalari etxarriarrak denboraldia ezin hobe hasi du, Valentziako maratoi erdiko eta Behobia-Donostiako markak gaindituz. London du jomuga



Asier Estarriagak Behobia-Donostiako marka minutu batean hobetu zuen. UTZITAKOA

**2021ean esan zenuen pistari gus-tua hartu zeniola "pistak zeure tokian jartzen zaituelako". Berdina pentsatzen jarraitzen al duzu?**

Berdin-berdina. Ni asfaltoan lehiatzen naiz gehiago, nire baldintza fisikoengatik proba luzeetan hobeki moldatzen naizelako. Baina serieak eta bestelakoak pistan entrenatzen ditut, eta udaberri eta uda aldera pista egitea gustuko dut.

**Atletismoan nola antolatzen duzue denboraldia?**

Ikasturteka, ikasleak bezala. Abuztuan prestateta egiten hasten gara, urriaren bukaeran eta azaroaren hasieran sasoi gorena lortzeko. Gero denboraldia luzatzen dut, abenduan Zubeztia lasterketan, San Silvestrean, krosetan eta bestelakoetan aritzeko. Ilbeltzetik aurrera bigarren zati bat egiten dugu, aurretik finkatutako helburuak lantzeko. **Joan zen urteko denboraldia nola itxi zenuen?**

2023/2024 denboraldia ongi joan zen. Luzea izan zen, nire lehen-dabiziko maratoian debutatu nuelako, Valentzian, 2023ko abenduan. Gainera, marka oso ona ateratu nuen (2:29:13), eta presta-

**"AURREKO DENBORALDIA ONGI JOAN ZEN, BAINA AURTENGOA ORAINDIK HOBEA IZATEN ARI DA"**

ketaren inguruan gauza asko ikasi nituen. Bigarren zatia ere oso positiboa izan zen, baina aurtengo hasi berri den 2024/2025 denboraldia oraindik hobea izaten ari da, Valentziako maratoi erdiko eta Behobia-Donostiako markak hobetu ditudalako. Denboraldi osoko helburu garrantzitsuena apirilaren 27an jokatu den 45. Londongo maratoia da. Londongo dortsala lortu dut, gauzarik zailena dena (kar-kar). **Zergatik Londongo maratoia?**

Batetik, egutegiagatik. Maratoi batetik bestera urte eta erdiko alde utzi nahi nuen, urtero maratoi bat egiteko errutinan sartzen bazara pisua egiten delako. Eta, bestetik, Londongo maratoia munduko sei maratoi handien zerrendan edo Six Majors Marathon-en sartua dagoelako.

**Ilbeltzean Altsasuko Krosa jokatu da, aldi berean Nafarroako Kros Txapelketa izango dena. Bertan parte hartuko duzu?**

Maratoia prestatzeko plangintzaren barruan ilbelta hasieran aste batzuk atsedean hartuko dut, eta orduan erabakiko dut. Maratoi bat prestatzen ari zarenean, ezin zara antolatzen diren lasterketa guztietan lehiatu, prestatetarako ongi datorkizun probatan baizik. Entrenamendu plangintzari lehenasuna eman behar diozu.

**Maratoira salto egiteko pausoa ematea sekulakoa izango da.**

Zailena kilometro horiek asimilatzea izaten da. Egun asko pilatzen dituzu atsedean hartu gabe. Maratoi baterako hamabi-hamalauro asteko prestateta egiten dut, eta maratoi erdi baterako, aldiz, zortzi-hamar hastekoa. Jakina, aurretik sasoiaren egonda, ez zerotik hasita. Epe horretan bizpahiru lasterketan parte hartzea egokia da, nola zauden ikusteko.

**Aurtengo Espainiako Txapelketetan parte hartzen saiatuko zara?**

Maratoiko prestatetarekin bat egiten duen probaren bat ateratzen bada, agian bai, baina bestela ez dut asmorik.

**Egutegia guztiz lotuta izaten duzue. Noizbait deskonektatzen al duzue?**

Ahal denean (kar-kar). Eguberrietan beti parrandaren bat erortzen da, baina, egia esan, denboraldiko helburuek normalean entrenatuta egotea eskatzen dizute.

**Londonera bakarrik joango zara?**

Lehiatzen bada, baina horniduran laguntzeko laguntzaileak izango ditut. Oso gogotsu nago.



Fermin Herrero "pozik eta eskertuta" jaso zuen, asteazkenean, Kirol Merituaren Zilarrezko Domina, Nafarroako Jauregian.

# Merezitako aitortza

**SASKIBALOIA** Altsasun saskibaloia sustatzen 36 urte eman dituen Fermin Herrero Palomok Kirol Merituaren Zilarrezko Domina jaso zuen asteazkenean Nafarroako Jauregian. Altsasuko taldeko jokalaria izan zen, eta entrenatzaile handia

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU Bizitza bat saskibaloia emana. Fermin Herrero Palomo altsasuarrak 57 urte ditu, eta horietatik 36 eman ditu Altsasuko saskibaloia taldean. "14 urte nituenean hasi nintzen saskibaloia taldean jokatzeko. Orduan Altsasu Kirol Elkartearen barruan zegoen taldea. Aldi berean, 17-18 urte nituela txikien taldeak entrenatzen hasi nintzen" gogoan du Herrero. Gaur egun inpasan dago; 36 urtetan lehendabiziko aldiz ez du talderik entrenatuko, amaren zaintzan laguntzeko, "baina hau geldialdi bat da, ez dut saskibaloia behin betiko utzi. Ez dut aterik itxi, argi esan nion CBASK-eko (Club Baloncesto Altsasu Saskibaloia Kluba) koordinatzaile Iosu Mendiolari".

Bitartean, Herrero merezitako aitortza jaso zuen asteazke-

nean Iruñeko Jauregiko Tronoaren gelan, Nafarroako Gobernuaren Kirol Merituaren Zilarrezko Domina, "35 urte baino gehiagotan Altsasun saskibaloia sustatzeagatik, entrenatzaile eta juntako kide gisa, eta baita Nafarroako Saskibaloia Federazioko selekzio batean entrenatzaile izateagatik". Fermin Herrero "eskertuta eta oso pozik" dago aitortzarekin.

**Herrero jokariaren hasierak** Altsasuko saskibaloiko historian aski ezaguna den Gonzalo Rueda bizilagun zuen Fermin He-

**"14 URTE NITUENEAN HASI NINTZEN SASKIBALOIAN, ALTSASU KIROL ELKARTEAN"**

rrerok, eta berak animatuta sartu zen saskibaloian, 14 urte zituela, jokalaria. "Orduan urte horiekin hasten zen saskibaloian, kadete mailan. Gogoan dut kadete eta junior mailatan Zelandik Mojen kontra jokatzeko zuela, Iruñeko taldeen kontra... Gehienetan kalean jokatzeko genuen, pistetan. Ez zegoen autobusik, gurasoek eramaten gintuzten partidetara. Juniorretan Pablo Villarrealekin eta Aristizabal anaiekin jokatzeko nuen, besteak beste". Altsasu Kirol Elkartearen barruan zegoen taldea. "Kirol Patronatuak antolatzen zituen Altsasuko kirol eskolak, Mari Carmen Goikoe-txeak. Kirol ezberdinen taldeak sortu, eta entrenatzen genuen". Denborak aurrera egin ahala, senior mailako Altsasu taldean jokatu zuen. "Gazteak eta zenbait beterano geunden. Pablo Colinaz

asko oroitzen naiz, bera ere bizilaguna nuelako, Gonzalo Rueda bezala".

## Burundatik Zelandira

Senior mailan etxeko partidak Burunda pilotalekuan jokatzeko zituen Altsasuk. Saskibaloia zelaia margotuta zegoen Burundako zoruan, eta saskiak muntatu eta desmuntatzen ziren, beharren arabera. "Desmuntatzerakoan garaiko jarlekuetan, zurezko bankuetan kokatzen genituen saskiak, kontrapisuak kendu ondoren. Sekulako lana zen". Denborarekin Zelandi egokitu zen. "Saskiak jarri ziren, baina ez zuen 24ko erlojurik, ezta markagailurik ere. Guk denbora markagailua eta tanteo markagailua exijitzen ziguten kategori batean jokatzeko genuen, baina Zelandik ez zituen beharrezko prestazioak, 1990. urtean kiroldegia zabaldu eta obra egin arte. Altsasu Kirol Elkartea gizona mustu genituen Zelandi kiroldegiko lanak, urte hasieran". Uda horretan bertan, 1990. urtean, Altsasu Kirol Elkartetik atera, eta CBASK kluba sortu zuen, Club Baloncesto Altsasu-Altsasu Saskibaloia Kluba.

## Hirugarren maila eta beste

1994/1995 denboraldian erregional mailako liga irabazi zuen Arfe-Altsasuk, Fermin Herrero jokalaria zela, eta orduko hirugarren mailara igo zen. "Igoera sekulakoa izan zen. Gaur egun hirugarren maila ez da existitzen, orduko hirugarren maila gaur egungo bigarren maila litzateke, baina egungoa baino potenteago, egun Nafarroa eta Errioxako taldeek jokatzeko dutelako, baina orduko hirugarren mailan egungo Euskal Liga modukoa zen: Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Errioxako taldeek jokatzeko genuen". Talde majoa zen Altsasukoa, baina kategorian berriaritzeko ez zen nahikoa. "Iruñeko jendea ekartzen hasi ziren, Urtasun anaia bikien aita, Samanes, Etxalar, Goikoetxea, Ibarrola... eta beste. Altsasuarrek minutu gutxi jokatzeko genituen, egia esan, eta batzuk taldea uz-

**"HARROBIA LANTZEA EZINBESTEKOA DA. 17-18 URTEREkin HASI NINTZEN TXIKIAK ENTRENATZEN"**

ten hasi ziren. Kategorian gogorra zen, asko sufritu genuen". Hirugarren mailatik bigarrenera igo zen Altsasu, Enrique Vila-sekin, eta ondoren bigarren mailatik EBA Ligako lehen B mailara, beste proiektu batekin. "Orduko bigarren maila zen, baina maila oso handia zuen. Ordurako, babesleak zirela eta, taldea Iruñera eramana zuten, eta ez zuen Altsasu izena, Señorío Zuasti baizik, golf kluba babesle nagusia baitzen. Juan Jose Marin zenak, Juanjo Urdiainek... jokatu zuten bertan. Bitarte horretan, Altsasuren estela edo plaza nolabait galdu zen, eta Altsasun zerotik hastea erabaki zen, erregional mailatik" gogoan du Herrero.

Fermin Herrero Palomok lesioagatik utzi zion saskibaloia jokari izateari. "33 edo 34 urte nituela utzi nuen, maleolo haustura izan eta gero". One man club edo klub bateko kirolaria izan da beti Herrero, Altsasukoa.

## CBASK klubaren sorrera

CBASK klubaren hastapenetan Jose Manuel Claver Berenguer, Ciriaco Herrero Palomo; Manuel Tajuelo Pradillo, Enrique Vilas Merida, Jose Maria Misiego Fernandez eta Fermin Herrero Palomo ibili ziren lanean. Hasiarik juntan aritu zen Herrero. "Lehen bi urteetan ez, baina hirugarrenean presidente izendatu ninduten eta 5 urtez aritu nintzen. Gero utzi nuen, baina aurrerago ere beste bost urtez izan nintzen presidente". Enrique Vilas zen koordinatzaile.

Ordurako erregional mailako taldearekin hasi zen zerotik lanean CBASK, eta atletik zetorren harrobi guztiarekin. "Orduetik lanean hasi, eta gutxiak gaur egun duguna lortu dugu: gizonen bigarren maila autonomiko taldea, eta emakumezkoen lehen senior mailako taldea, gure bi talde gorenak. Taldeak etengabe berritzen dira, junior mailatik neska-mutil gazteak sartzen baitira, guztiak Sakana-kokalaria". Lorpen handia.

## Herrero entrenatzailea

CBASK klubak harrobi indartsua du; entrenatzaileen lana ezinbestekoa da horretan. Fermin Herrero izan da entrenatzaileetako bat, 17-18 urte zituenetik. "Harrobia ez baduzu lantzen, egungo ogia, biharko gosea. Hala gertatu zen garaiko Altsasuko





1995ean Altsasuk erregional mailako liga irabazi eta hirugarren mailara igo zen. Taldekideen artean, Fermin Herrero. UTZITAKOA

eskubaloit taldearekin. Talde ona zuen Altsasuk, baina ez zuten haurren talderik, eta eskubaloia desagertu zen, pena handia. Gazte ginenetik hasieratik esan ziguten, txikien talde bat hartu eta entrenatzeko, eta gaur egun ere hala egiten da". Helburua neska-mutilak saskibaloian trebatzea da. "Disfrutatu dezatela, hori da garrantzitsuena, eta oso argi izan dugu beti. Entrenatzeko gogoia izan dezatela, teknika eta taktika lantzeko gogoia; engantxatu daitezela".

Entrenatzaile bakoitzak txikien talde bat hartu eta hiru urtez egoten da lanean eurekin. Gero beste talde bat hartzen zuten. "Helburua taldeak entrenatzeko beste molde batzuk ezagutzeko da, beste entrenatzaile baten jokatzeko ikuspegia barnatzea, bai erasotzeko garaian, edo defendatzerakoan". Tarteka hiru urteko egonaldia luzatu dute, talderen batekin konexioa edo lana oso emankorra denean.

#### Selekzioko entrenatzaile

Aurten geldialdia egin du Herrerok, ama zaintzeko, baina orain arte urtero talde bat edo pare bat izan ditu. "Izugarri gustuko dut neska-mutilekin saskibaloian aritzea, baina lan handia da. Astero hiru entrenamendu, larunbateko partida eta gainontzeko partidetan arbitratu edo mahaian egon..." 2008an Nafarroako gizonezkoen kadeteen selekzioko bigarren entrenatzailea izan zen, Lizarrako Iñaki Cruz entrenatzailearen bigarrena. "Aurreko bi urteetan nire taldearekin Final Fourrera sailkatu ginen, infantilak zirenean eta kadeteetara pasa zirenean.



Fermin Herrero eta Marina alaba, lehen mailako junior taldearekin. UTZITAKOA



2017/2018ko lehen erregionala irabazi, eta bigarren mailara igo zen CBASK. UTZITAKOA

**"CBASK-EN SARTU DIREN GAZTEAK LAN ITZELA EGITEN ARI DIRA: KLUBA ESKU ONETAN DAGO"**

**"36 URTE PASA ESKAINI DIZKIOT SASKIBALOIARI, BOKAZIOZ. AITORTZA JASOTZEA POLITA DA"**

Horregatik deitu ninduten federaziotik kadeteen taldea zuzentzeko. Gure taldekide Igor Martinez eta Xabi Igoa selekzioko kideak ziren. Politia izan zen, baina oso nekatuta bukatu nuen".

Herrerorendako handiena hasieran bere ilobak, eta gero Jorge eta Marina seme-alabak entrenatzea izan da. "Seme-alabak txikiak zirenetik ekartzen nituen nire taldeen entrenamenduetara. Horregatik hasi ziren biak saskibaloian. Marinarik kadete maila bukatzerakoan utzi zuen saskibaloia, orduan junior mailako taldea ez zegoelako. Jorgek, aldiz, aurrera jarraitu zuen eta egun Agurain taldean jokatzeko du, Euskal Ligako bigarren mailan. "Joan zen urtean igo ziren eta talde polita dute, ongi ari dira".

#### CBASK, esku onetan

Emakumeen kadete taldea entrenatu zuenean Marina alaba Ferminen laguntzailea izan zen. Kategoria berria sortu zuen euren: juniorren lehen maila. "Taldea ederra zen. Emakumezkoekin gustura aritzen naiz. Diziplina handiagoa dute, konstanteak dira eta langileagoak dira". Egungo emakumezkoen lehen seniorren taldeko jokalariek gehienak bere eskuetatik pasa zirenak dira, juniorren talde hura. "Iosu Mendiolak nesken senior taldea sortzeko ahalegina egin zuen, eta hor daude, lehen mailan. Izugarri pozten nau". Bestalde, 2017/2018 denboraldian Herrerok entrenatzen zuen gizonen lehen erregionalak liga irabazi zuen eta bigarren maila autonomikora igo zen. "Jokatutako 25 partidetatik soilik bat galdu genuen. Ikusgarria".

Belaunaldi aldaketa eman da CBASK-en, Vilas, Ruedak eta lehengoek taldea utzi eta gazteek, Iosu Mendiola koordinatzaileak eta egungo juntak, klubaren ardura hartu dutelako. "Lan itzela ari dira egiten; kluba esku onetan dago".

#### Oso eskertuta

Altsasuko saskibaloia lotutako Enrique Vilasek eta Jose Maria Misiegok Nafarroako Gobernuaren Zilarrezko Domina jasoa zuten aurretik, eta asteazkenean Fermin Herrerok berea jaso zuen, Maria Chivite presidentearen eskuetatik eta emaztea eta semea alboan zituela. Alabak ezin izan zuten egon, lan kontuengatik. Merezitako aitortza, zalantzarik gabe.



**"Ezin nuen sinetsi ere egin"**

**FERMIN HERRERO PALOMO** CBASK

#### Kirol Merituaren Zilarrezko Domina jasotzea espero al zenuen?

Ez nuen inondik inora espero. Nafarroako Gobernutik deitu zidatenean lanean nengoen Cementos Portland-en. Hasieran pentsatu nuen Errenta Aitorpeneko konturen bat izango zela, baina saskibaloian nire 35 urte baino gehiagoko ibilbidea aitortzeko domina emango zidatela esan zidatenean, zur eta lur geratu nintzen.

#### Poztekoa izango da.

Zalantzarik gabe. Oso pozik nago. Pentsatzen dut nire entrenatzaile lanaz gain, CBASK klubeko zuzendaritzan egindako lana ere aitortu nahi didatela, eta baita Nafarroako selekzioan aritutako urte hura. Lan hau bokazioz egiten dugu, borondatez, baina polita da norbaitek aitortza egitea. CBASK-etik proposatuko zuten nire izena, eta horregatik Xabier Ramirez de Alda presidenteari eskerrak eman nizkion, lantalde eta juntakide guztiei luzatzeko. **Senitartekoak ezinbestekoak izango dira zuek zuen zaletasunean aritu ahal izateko.**

Jakina! Domina emazteari eman beharko liokete niri eman beharrean.





Altsasuko tenis pista. ARTXIBOA

## TENISA Zelandiko tenis pista, atzera ere zabalik

Zelandiko tenis pista konpontzeko lanak asteazkenean egin ziren, eta ordutik atzera ere erabilgarria dago tenis pista, erabiltzaileen gozamerako.

Kalean dauden tenis pista gehienetan egiten den bezala, erabiltzaileek haizea geratzeko bi sare edo gailu jarri zituzten itxituran, bi "paraviento" delakoak, baina urriaren hasierako haizeteak bela efektua egin zuen, eta hegoaldeko sarea apurtzeaz gain, itxiturako zutabeetako bat makurtu zuen, eta ordutik itxita egon da pista, asteazkenean arte. Altsasuko Tenis Rubor klubak Altsasuko Institutuan ematen ditu klaseak –aurten 40 neska-mutil eta 17 heldu baino gehiago ari dira trebatzen–, eta alde horretatik klaseek aurrera jarraitu dute pista itxita egon den bitartean, baina bertan jokatzeko da klubak antolatzen duen Tenis Rankinga, eta geldirik egon da. Javier Ollo alkateak azaldu duenez, 2.989 euroko konponketa egin behar izan da itxitura eta bestelakoak konpontzeko.

# Markos Beraza Espainiako txapelduna, hirugarrenez

**ENDUROA** Azaroaren 24an Cerro Murianon (Cordoba) erabakitako Espainiako Enduro Txapelketan senior B 4T mailako txapeldun izan zen Markos Beraza irintarra. Hirugarren urtez jarraian lortu du maila horretako txapeldun izatea

**M. B. G. IRAÑETA**

Aldaketekin hasi zuen denboraldia Markos Beraza Vitoria (Ziki Team) pilotu irintarrak. Azken urteetan Santanderreko Zona Paddock-ek ematen zizkion asistentzia eta laguntza mekanika kontuetan, baina aurten Berangoko UK Racing taldearekin aritzea erabaki zuen. Aldaketa ongi atera da, azken bi urteetan bezala Berazak Espainiako Enduro Txapelketako senior B mailako 4T txapelketa irabazi baitu lau denborako KTM motorrarekin.

Enduroa zirkuitu iraukora batean egin da, eta erresistentzia proba da. Espainiako Enduro



Markos Beraza eta bere taldea, garaipena ospatzen. UTZITAKOA

Txapelketako azken proba igandean jokatu zen, Cerro Murianon (Cordoba). Txapelketako baliagarria zen azken proba zen Cordobakoa, martxoaren 16an eta 17an Antasen (Almeria), apirilaren 27an eta 28an Santiagon (Coruña), ekainaren 8an eta 9an Infieston (Asturias) eta azaroaren 11n Cozarren (Ciudad Real) jokatutakoen atzetik.

"Cordobakoa proba ederra izan zen; basoa primerako egoeran zegoen eta zirkuitua dagokienez, behetik gora egin nuen. Nahiko hotz hasi nintzen, presioaren eta nerbioen eraginez, baina gutxi hobetzen joan nintzen eta, azkenean, guztiak bat egin zuen eta ongi bukatu nuen" azaldu du irintarrak. Txapelketan hasieratik lider jarri zen Markos Beraza, eta bukaerara arte lehen postuari eutsi dio, jokatu diren proba guztiak irabazita (225 puntu). Bigarren Pau Valero izan da (170 puntu). Joan zen urteko txapelketan arerio zuzena zuen Jesus Duarte almeriarra aurten ez da lehiatu, lesioagatik. "Alde horretatik aurreko bi urteetan baino lasaia aritu naiz".

## AUTOMOBILISMOA Asier Juanez, bere mailako onena Arasko Igoeran

Azaroaren 16an I. Arasko Igoera jokatu zen, 6,3 km-ko mendi igoera, Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketarako baliagarria. Iosu Beitiak (Speed Car GTR Evo) irabazitako proban (03:06.499), Asier Juanez altsasuarra (Renault Clio Sport) bikain aritu zen eta scratchean hamahirugarren izan zen, baina bere mailan, zortzigarren klasean, lehena (03:34.810).



Juanez, Arasko podiumean. AVM

## AUTOMOBILISMOA Iker Palacios, Nafarroako Txapelketan hirugarren

Nafarroako Automobilismoko Federazioak antolatutako Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketa despeditu da. Zazpi probek puntuatzen zuten –Ioar, Izpegi, Ibardin, Etxalar, Lezaun, Urbasa eta Aras–, eta monoplazen kategorian Daniel Jimenez izan da txapelduna (220 puntu), Arkaitz Ordokiren (192 puntu) eta Iker Palaciosen (94 puntu) aurretik.



**M**  
Mondragon  
Unibertsitatea  
Goi Eskola  
Politeknikoa

ATE IREKIAK  
**GOIERRI  
CAMPUSA**  
ORDIZIA

Ingeniaritza  
Mekanikoko Gradua

Abenduak 14, 11:00  
Urtarrilak 18, 11:00  
Otsailak 11 Online, 18:00



EMAN  
IZENA!

[www.mondragon.edu/ate-irekial](http://www.mondragon.edu/ate-irekial)





Goiatz Labandibar idazlea. UTZITAKOA

# "Idazketa prozesua ere oso dibertigarria izan zen"

**GOIATZ LABANDIBAR IDAZLEA**

Sakanan bi bisita eginen ditu: abenduaren 11n, Iortian, 'ZOO' liburuarekin egonen da, eta abenduaren 18an, Pikuxarren, 'Bekatua' liburuarekin

**Eneida C. M. eta E. R. B. SAKANA**  
Kanpinetako istorioak kontatzen ditu *ZOO* liburuan eta egun batetik bestera bizitza hausnartzera eramaten duen "neska arrunt" baten inguruan idatzi du Goiatz Labandibar idazleak *Bekatua* liburuan. Lehenengoari buruz abenduaren 11n, asteazkena (18:30ean), Iortian solasean izanen da, Sakanako Mankomunitateak eta Itsasi euskaltegiak antolatutako literatur solasaldian, eta bigarrenari buruz Pikuxarreko irakurle taldearekin izanen da

abenduaren 18an, asteazkena (19.00etan). *ZOO* liburuak Gipuzkoako Liburu Denden Elkartearen Zilarrezko Euskadi Saria jaso zuen.

**Zer sentitzen da horrelako sari bat jasotzean?**

**"KANPIN BAT IA ESPERIMENTSU SOZIOLOGIKOA IZAN DAITEKE; MIKRO GIZARTE BAT"**

Egia esan, ezusteko handia izan zen *ZOO*-k jasotzea; poz handia ere, beti eskertzen da sari bat, baina iruditzen zait *ZOO* ez dela saritzen den liburu bat. Tonu aldetik, dibertigarria eta jolastia da, eta askotan sariak literatura kaxotxan artean serioago saritzen dutela dirudi. *ZOO* kode horietatik urruntzen da.

**Helburua liburu dibertigarria egitea zen?**

Bai. Horrela definituko nuke. Idazketa prozesua ere niretako oso dibertigarria izan zen, oso

ongi pasa nuen ipuin hauek idazten, eta emaitza halakoa dela uste dut. Bigarren irakurraldi batean gai sakonak ere aipatzen dira, baina tonua bada nahiko umorezkoa. Pozik gelditu nintzen. **Jende askoren opor lekuak dira kanpinak. Jende oso desberdinen oporraldiak, edo ez hain desberdinak?** Jende geroz eta desberdinagoa elkartzen da kanpinetan. Agian garai batean ez zen hain desberdina, baina gaur egun kanpinaren kontzeptua bera hainbeste aldatu da eta hainbeste abaniko hartzen du, ia esperimendu soziologikoa ere izan daitekeela. Hor elkartzen dira gizarteko estraktu oso desberdinak edo bizitzeko modu oso desberdinak dituzten pertsonak oso espazio murriztean eta oso elkarren ondoan. Mikro gizarte bat izan daiteke. Gainera, askotan oihailezko paretekin. Esperimendu interesgarriak dira kanpinak.

**Hamabi istorio jaso dituzu, eta kanpinak dira horien lotura.**

Kanpin guztiak desberdinak dira eta istorio guztiak kanpin batean gertatzen dira. Hari edo lotura nabarmenena da. Badira beste lotura batzuk, baina nabarmenena kanpina da. Ez dut esaten kanpin horiek non dauden, nire mapa mentalean badaude, baina irakurleari libre utzi nahi diot bere iruditegia sortzeko. Seguruenik norbaitek berak ezagutu duen kanpin batean kokatuko dituela. Irakurleari istorioaren zati bat sortzen uztea polita da.

**Kanpin batean sortu zitzaizun ideia?**

Umetan kanpinera bidaiatzen genuen gurasoekin; asko joan naiz. Gaur egun tarteka ere joaten naiz. Kanpinak gustatzen zaizkit, baina istorio hauek ez dira autobiografikoak edo niri gertatutako istorioak. *ZOO*-ren prozesua hasi zen lagun bat etorri zitzaidalako, oso hurbilekoa dena eta sorkuntza prozesuetan presente dagoena, eta bera oporretan kanpin batean egon zen eta esan zidan kanpinei buruzko istorioei buruz idatzi behar nuela. Ezetz esan nion; ez zitzaizkidan inspiragarria iruditzen. Gero oporretan kanpin batean sartu ginen eta lehenengo istorioan kontatzen den antzeko

**"BURUA MARTXAN JARTZEN DENEAN NOLA DOAN IDEIA BATETIK BESTERA KONTATU NAHI NUEN"**

zerbait gertatu zitzaigun. Bueltan idazten hasi nintzen eta bata bestearen atzetik oso azkar idatzi nituen. Nire idazketa prozesutik oso desberdina izan zen, baina ezin nuen kanpinetik atera.

**'ZOO'-a eta kanpinak. Zergatik paralelismo hori?**

Hasieran bildumak izenbururik ez zuen. Gero konturatu nintzen modu inkontzientean animaliak ere aipatzen nituela eta paralelismo asko egiten nituela animaliekin. Hortik abiatuta *ZOO* izenburua etorri zen. Azken finean, *ZOO* baten kanpoko ikusle bat dago animaliak begiratzen, eta nik pixka bat hori egin dut kanpineko pertsonaia hauekin. *ZOO*tik pixka bat badute.

**'Bekatua' liburuan Garaziren istorioa kontatzen da. Ezezagun batekin esnatu da...**

Bai, hortik abiatzen da. Nik kontatu nahi nuena berez zen burua martxan jartzen denean nola doan saltoka ideia batetik bestera, itxuraz koherentziarik gabe, baina gure buruak nola egiten dituen lotura horiek. Horretarako aitzaki bat nuen eta pertsona arrunt baten egunerokotasuna zalantzan jartzen zuen egoera bat behar nuen. Orduan, erabaki nuen Garazi ezezagun baten ohean sartzea. Bere bikotea ez da ondoan dagoena. Horrek eramaten du bere buruari buruz hausnartzera, bizimoduari buruz hausnartzera, baita inguruari buruz hausnartzera ere. Nobela labur bat da, baina barne bazarriketa bat bada. Ez nuen liburu zigortzailea egin nahi.

**Harreman mota desberdinei buruzko hausnarketa bat?**

Aipatzen ditu. Protagonistak bere burua neska arrunt bat bezala ikusten du. Zer da arrunta? Ohikotasunetik ateratzen ez den bizimodu bat duena.

**Nolakoak izaten dira zure aurkezpenak?**

Denetarik egoten da. Eskatzen duten edo saioak antolatzen dituzten moduaren arabera. Kasu hauetan, Altsasun Mintzakideen bidez noa eta Irurtzuna Nerea Baldak gidatzen duen irakurle taldearengana noa. Bi kasuetan, teoriarik, liburu irakurritza izango dute, orduan elkarriketa moduko solasaldi bat izango da. Altsasuko kasuan Idoia Artieda izango dut ondoan, eta berak gidatuko du hasiera batean eta gero edozeinek izango du jakin edo aipatu nahi duena esateko aukera.

# Ekain Alegrek jantzi du Izeta Sariketako txapela

Hamabi bertsolarik parte hartu zuten Baztanen, azaroaren 23an, jokaturako baztandarraren omenezko sariketaren hamaikagarren edizioan. Finalera sei sailkatu ziren: Alegre eta Granizo altsasuarrak, Zapiain, Lasarte, Astiz eta Legarra

## ALTSASU

XI. Mariano Izeta Bertso Sari-keta jokatu zen azaroaren 23an, larunbatean, Baztanen. Guztira, hamabi bertsolari gaztek parte hartu zuten, Elizondoko eta Erratzun jokaturako kanporaketetan: Ainara Ieregi Aranburu, Beñat Astiz Isasi, Eki Mateorena Zozai, Endika Legarra Nuin, Julen Bernaldo de Quiros Royo eta Idoia Granizo Uribarrena altsasuarrak, Elizondoko Intza tabernan, eta Ekhiñe Zapiain Arlegi, Etxahun Azkarraga Fernandez, Josu Txoperena Iribarren, Kattin Madariaga Apaolaza, Mikel Lasarte Cia eta Ekain Alegre Gil altsasuarrak, Erratzuko Zubi-Punta tabernan. Sei bertsolari sailkatu ziren Elizondoko jokaturako finalera, hiru kanporaketa bakoitzean, eta horien artean Alegrek jantzi zuen txapela. Bertso onenaren saria Beñat Astizek irabazi zuen.

Beñat Astiz, Endika Legarra eta Idoia Granizo eta Ekain Alegre, Ekhiñe Zapiain eta Mikel Lasarte bertsolariak izan ziren Izeta Sariketako finalistak. Elizondoko Kortaxar jatetxean jokatu zen, 50 bertsozaleren aurrean. Zigor Gartzia Zian gai jartzaile izan zen, eta bost epaile izan zituen: Amaia Telletxea,



XI. Izeta Sariketako finalistak; eskuinetik hirugarrena, Ekain Alegre. NBE

Nerea Bruño, Patxi Barberena, Joseba Beltza etxarriarra eta Julen Zelaieta. 328,5 punturekin Ekain Alegrek jantzi zuen txapela; haren ostean sailkatu ziren Ekhiñe Zapiain (328), Mikel Lasarte (314), Beñat Astiz (300,5), Idoia Granizo (294,5) eta Endika Legarra (284,5). Beñat Astizek jaso zuen bertso onenaren saria, hamarreko txikiko bigarren bertsoagatik.

Bi sariak, txapela eta bertso onenarena, Ines Izetak Mariano Izeta zenaren alabak banatu zituen.

## Izeta Sariketa

Nafarroako Bertsozale Elkar-teak eta Baztango Udalak antolatu du Izeta Sariketa, Mariano Izeta bertsozale eta euskaltzale baztandarraren omenez eta bertsolaritza alde egindako lana eskertzen. Sariketa 2004. urtean egin zen lehenengo aldiz, eta helburu nagusia Nafarroako bertsolari gazte eta hasiberriei kantatzeko aukera ematea da. Bi urtetik behin antolatzen da, eta aurten hamaikagarren edizioa izan da.

## Aurten ere pailazoen bisita izanen da Irurtzunen

Katxiporretako pailazoek 'Ostirala iritsi da!' ikuskizuna egingen dute abenduaren 3an

## IRURTZUN

Abenduaren 3an Euskararen Eguna da, eta Irurtzunen Katxiporretako pailazoekin ospatzen dute; 17:00etan, kiroldegian, Porrotx eta Marimototsen *Ostirala iritsi da!* ikuskizun berria izanen

da. Sarrerak Pikuxarren, Estan-koan, Martxuetan eta Leitzako Maimurren eros daitezke.

Pailazoen ikuskizun berria 2023ko azaroan argitaratutako *Txapasen kaxa magikoa* ipuin eta disko ilustratuetan oinarri-

tuta dago. Josu Txapartegi Aramendi *Txapas* euskal akordeoi-lari, idazle, abesbatzako zuzendari, organo jole eta sortzaile oparoa da, irakasle jubilatua, eta bere bizitzan hamaika abesti sortu ditu; tartean *Ostirala iritsi da* kanta da *Txapasek* sortutako kanturik ezagunena. Katxiporreta Kooperatibak aitor-tza egin nahi die *Txapasi* eta egunerokotasunean haien balioak eta bizipenak "maitasunez eta ilusioz partekatzen dituzten hezitzaile guztiei".



BAZTERRETIK

ALTSASUKO UDAL  
LIBURUTEGIA

## Irakurketa proposamen hauekin gatoz

**HELDUENDAKO: nobela**  
*Detalle xume bat/ Adania Shibli. – Igela, 2024*

1948ko arabiar-israeldar gerran zehar zazpiehun mila palestinar baino gehiago izan ziren beren etxetik egotziak. Hondamendi horri deitzen zaio Nakba edo palestinar exodoa. Handik urtebete pasatxora, 1949ko udan, Israelgo estatu sortu berriak destakamentu militar bat bidali zuen Negev basamortura Egiptorekiko hegoaldeko muga zaintzeko, baita inguruan arakatzeko ere, han gelditzen ziren arabiarren bila. Espedizio horietako batean, soldaduek beduino talde bat aurkitu zuten, eta aurkikuntza hura krimen baten abiapuntua izan zen. Zenbait hamarkada geroago, XXI. mendearen hasieran, emakume palestinar batek gertakari horri buruzko artikulua batekin egin du topo, eta, harekin lotutako detalle xume batekin obsesio-naturik, bidaiari arriskutsu bati helduko dio lurralde okupatuetan zehar, egiaren bila.

**GAZTEENDAKO, HELDUENDAKO: Eleberririk grafikoa**  
*Mo: behi euskaldun baten memoria*

/ Juan Suarez (irudiak), Pello Varela (gidoia). – La Cupula, 2024

Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoria* nobelan oinarritua.

MOK ez du behi makal bat izan nahi. Ulertu egin nahi du bere mundua,

Balantzategi baserria eta haren inguruan gertatzen ari dena. Zergatik dago basoa begiz beteta? Nor da Karra! 1936ko gerra ez al zen, bada, bukatu? Bere barruko ahots zuhurrak galderak alde batera uzteko eskatzen dio, bizitzeko lasai, baina berak nahiago du La Vache betizuari segitu eta, arriskuak arrisku, nor izan.

**HAURRENDAKO – GAZTEENDAKO - HELDUENDAKO: Album ilustratua**  
*Bat eta zazpi / Gianni Rodari ; irudiak, Beatrice Alemagna*

Paolo, Jean, Kurt, Juri, Jimmy, Txu eta Pablo. Zazpi ume, zazpi hiritakoak: Erroma, Paris, Berlin, Mosku, New York, Shanghai eta Buenos Aires. Zazpi ume desberdin baina ume bera. Zazpi ume, hizkuntza berean egiten dutenak irri. Zazpi ume, handitzen direnean elkarri kontra egingen ez diotenak, gizon bera izanen baitira. Beatrice Alemagna da esanahi sakoneko istorio labur honen irudigilea. Haren irudiek testuraz eta kolorez beteak, une oro testuarekin bat egiten dutenak, informazio gehigarria ematen dute umeen hiriei buruz.



UTZITAKOA

## Urrezko Domina zuzendari

Etxarri Aranazko Abesbatzak Santa Zezilia egunaren harira emandako kontzertua berezia izan zen: sei herritar koroarekin kantatzera animatu ziren, eta Francisco Villanuevak abesbatzaren sortzaileari "sorpresa" eman zioten. Villanueva Nafarroako Abesbatzen Elkartearen 2024ko Urrezko Domina jaso du, eta larunbatean abesti bat zuzendu zuen.



# Inposizioari, kolorea eta bizia

Duela 21 urte Artozkin "erresistentziak" iraun zuen bitartean, elizan Artezki erakusketa egin zuten. Desagertutat eman ondoren, aurreko urtean hainbat artelan agertu ziren, "aitzaki ona" gertatutakoa oroitzeko; egunotan erakusketa lortian dago

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

2023an Itoizko urtegia eraikitze-ko Itoiz, Artozki eta beste herri batzuen hustearen eta herri horietan urtegia ez eraikitze-ko egindako erresistentziaren 20. urteurrena "ospatu" zuten, "ospatu, kakotxen artean", Pello Lusarreta Solidari@s con Itoiz taldeko kideak azaldu duen bezala. Urtemugaren testuinguru horretan Artezki erakusketa mustu zuten Agoizko kultur etxean, eta orain "hainbat tokitan" jartzen ari dira. Sakanara azaroaren 18an iritsi zen, Iortia kultur gunera, hain zuzen. Abenduaren 10era arte egonen da ikusgai.

"Hitz joko bat da: Artozki eta Artezki. Artozki erresistentziatik sortutako ekimen bat izan zen. Artista orori proposamen bat luzatzen zitzaion: artelan bat ematea". Garai horretan, jarraitu du Lusarretak, erresistentziatik espazio "bizi bat" antolatu zuten bi helbururekin: "erresistentzia sustengatu eta desalojoa oztopatu". Bildutako artelanekin erakusketa bat egin zuten Artozkioko elizan, erresistentziak iraun zuen bitartean.

Erantzuna "ikaragarria" izan zela nabarmendu du Luzarretak. "60 sortzaile inguruk bidali zuten beraien lana: eskultoreak, margolariak, argazkilariak, idazleak, musikariak...". Artelanak ez ezik, egun horietan talde eta erakunde askok ekimenarekin bat egin zuten: Agoizko dantzariak, txistulariak, erraldioen konpartsa, Fermin Muguruzak Hechos Contra el Decoro taldearekin jo zuen, Sor-kun, bertso saioak izan ziren... "Oso egun biziak izan ziren". Parte hartu zuten artisten artean sakandarrak ere izan ziren; Dora Salazar, Jose Ramon Anda, Kol-

do Arnanz, Jabi Trapero, Beatriz de la Vega, Josetxo Crespo, Enrique Zelaiak ere musikarekin parte hartu zuen eta abar. "Hau guztia antolatze-ko lanetan Josetxo Lukas sakandarra egon zen ere. Bai ala bai erakusketa Sakanan jarri behar genuen".

## Elkartasuna

"Guretako Artezki oso garrantzitsua izan zen elkartasun uholde ikaragarria izan zelako. Momentu ilun eta latz artean kolorea eta bizia ekarri zuen, eta inposizio, errepresio eta izugarrikeriaren aurrean sormena eta edertasuna". Artozkioko desalojoa baino hiru egun lehenago Itoizkoa izan zen: "Oso momentu latzak izan ziren, errepresio ikaragarri bortitza, oso krudela izan zen". Jendea eraikinetara kateatuta zegoen bitartean hondeamakinekin etxeak eraisten hasi ziren, "oso momentu delikatuak izan ziren".

Erresistentzian hamasei egun izan ziren, eta harekin batera erakusketa. "Desalojoa ailegatu zen, errepresio bortitza, atxilotak, polizia etxera eta epailearen aurrean pasatzea...". Horretan zenbiltzatela hondeamakinak herrian sartu ziren eta eraikinak txikitzen hasi ziren, eliza barne. "Hor ziren obrak galdutzat ematen genituen. Zenbait obra ziur, muralistek egindako horma-irudiak zirelako, eta elizaren barruan zeudenak galdutzat ematen genituen". Baina aurreko urtean,

**"AGERTUTAKO  
ARTELANEZ GAIN  
GARRANTZIA EMAN  
NAHI IZAN DIEGU  
AGERTU EZ DIRENEI"**

maiatza aldean, "gure harridurarako", modu anonimo batean zenbait obra helarazi zizkieten: "Flipatu genuen. 20 urte pasa dira eta lan batzuk helarazi zizkiguten. Galdera asko etorri zitzaizkigun burura: Non izan dira obrak orain arte? Noren ardurapean? Zer gertatu da agertu ez direnekin?". Agertutako obrak "aitzakia ezin hobea" izan ziren Artezki erakusketa martxan jartzeko, "eta gertatutakoa oroitzeko, memoria historikoaren aldetik".

Artezki erakusketak hiru zati ditu: artistikoa, oroitzapen objektuak eta, "parte garrantzitsua", politikoa edo borroka. Gainera, Itoizko urtegia egiteko desagertutako herrien maketak ere badaude ikusgai erakusketaren barruan, "Agoizko Belenistek egin dituzte, eta sekulako lana egin dute, adineko jendearekin hitz egin dute, planoak eta ortofotoak ikertu dituzte, ondare arkitektonikoa...".

"Agertutako artelanez gain garrantzia handia eman nahi izan diegu agertu ez direnei". Erakusketaren alde artistikoan, beraz, artistekin harremanetan jarri dira eta "berriz eskuzabalatasunez" obraren azalpen labur bat idatzi dute eta obraren lamina bat egin dute. Bestetik, erakusketan jendeak herrien eraispenetatik "salbatutako" gauza bitxiak ere ikus daitezke erakusketan, eta hirugarren partean egun horietan egindako "desobedientzia zibila, ekintza zuzena, mobilizazioa..." ikus daitezke, besteak beste, "argazki potente askoren bidez".

Sentsazio gazi gozoa gelditzen zaiela esan du Lusarretak: "Oso gogorra izan zen, baina beste alde batetik elkartasuna ikaragarria izan zen".



'Artezki' erakusketa lortia kultur gunean.



Besteak beste, artelanak eta garaiko argazkiak daude 'Artezki' erakusketan.



Desagertutako herrien maketak, 'Artezki' erakusketan.

# "Zerbitzu hau aktibo mantentzeko ideala da"

Josefina Arregi Klinikaren Familiendako Atsedean Zentroa zerbitzua aurkeztu dute. Sara Ruiz de Erenchun eta Covadonga Olartua programako dinamizatzaileak dira. Eguneko Zentroko instalazioetan dago, edozein adineko pertsonarendako bideratuta dago

E. C. M. eta E. R. B. ALTSASU

## 1 Zergatik da berezia Josefina Arregi Klinikako Familiendako Atsedean Zentroa?

Nafarroako iparraldeko eta Iruñerriko horrelako zerbitzua eskaintzen duen baliabide bakarra da. Josefina Arregi Klinikaren barruan dagoen arren, edozein adineko pertsonendako eta haien familiendako diseinatuta dago, memoria-rekin arazoren bat izan edo beste-lako espezializatutako egoera batean egon edo ez kontuan izan gabe.

## 2 Nork erabil dezake?

Baliabide honek bi helburu ditu: zaintza profesionala ematea eta adineko pertsonendako sozializazio espazio bat izatea, eta zaintzen duten familiei asteburuetan eta jaiegunetan beharrezkoa eta ezinbestekoa den atsedena ematea. Gainera, zerbitzua beharretara egokitzen da; egun bakar bat, asteburu osoa edo behar dituzten egunetan kontrata daiteke.

## 3 Zer profesionalek parte hartzen dute zerbitzuan?

Kualifikatutako pertsonak dira; adineko jendea zaintzen espezializazioa eta bokazioa dute, bai memoria arazoak dituztenekin



Sara Ruiz de Erenchun eta Covadonga Olartua dinamizatzaileak. UTZITAKOIA

bai bestelako behar espezifikoak dituztenekin. Pertsonan Zentratutako Atentzioa gure lanaren oinarrietako bat da.

## 4 Nola sortu zen zerbitzua sortzearen ideia eta zer behar bete nahi du?

Idea Eguneko Zentroko erabiltzaileen familien proposamen batetik

sortu zen. Alde batetik, adineko senideen astean zeharreko errutinak mantendu nahi zituzten eta beste pertsonekin elkar eragiteko ingurune bat nahi zuten, haien gustu eta gaitasunei egokitutako ekimenetan parte hartzen zuten bitartean. Beste alde batetik, familia horiek atsedean hartzeko, ekimen personalak egiteko eta konpromi-

so sozialendako denbora izatea bilatzen zuten ere.

## 5 Programak zer ekimen eta zerbitzu eskaintzen ditu?

Ekimenak erabiltzaileen preferentzia eta gaitasunetara egokitzen dira; besteak beste, estimulazio kognitiboa, gerontogimnasia, tertuliak, mahai jokoak eta eskulanak egiten dira. Zerbitzuaren barruan bazkaria, askaria, eguerdikozukua eta beharretara egokitutako zaintza integratuta sartzen dira.

## 6 Zeintzuk dira Familiendako Atsedean Zentroaren xede nagusiak?

Gure helburu nagusia arreta integrala ematea da, bai adineko pertsonari bai haien senideei eta beharrei, ikuspuntu profesional batetik eta arreta hoberena emateko baliabide egokienak erabiliz.

## 7 Non dago zerbitzua? Zer azpiegitura dauka?

Zerbitzua Josefina Arregi Klinikako Eguneko Zentroaren instalazioetan dago. Zentroa 2023an eraberritutako espazio bat da, adineko pertsonendako eroso eta irisgarria. Patio terapeutikora sarbidea dauka; bertan aire librean paseoak ematen dira, eta baratzea, landareak eta loreak zaintzen dira ere.

## 8 Zer egin behar dute familiek zerbitzuan parte hartzeko edo informazioa eskatzeko?

Klinikara deitu eta gizarte langilearekin, Covarekin, edo Eguneko Zentroko zerbitzu honetako koordinatzailearekin, Sararekin, hitz egin dezakete. Zerbitzua kontratatu aurretik interesa duen familiekin gelditzen gara, instalazioetatik bisita egiten dugu eta izan

ditzaketen zalantza guztiak azaltzeaz gain, elkar ezagutzen dugu.

## 9 Zer inpaktu dauka zerbitzuak erabiltzen duten familietan?

Beharra identifikatu genuenetik eta baliabide hau martxan jartzera animatu ginenetik, espero genuen bezala eragina oso positiboa izaten ari da; espektatibak betetzen ari dira, familiek eta erabiltzaileek konfirmatu diguten bezala. Probatu duten guztiak errepikatu dute; Iruñetik, Leitzaatik eta Nafarroako beste alde batzuetatik etorri dira. Familia batek komentatu zigun bere senideak gogo handiarekin itxoitzen duela, eta aste luzea egiten zaiola. Gainera, adineko pertsonen artean harreman oso bereziak sortzen dira, baita bere familiarekin eta zaintza profesionalekin ere.

## 10 Nola bermatzen da arretaren kalitatea adineko pertsonen egonaldian?

Zerbitzuko profesionalek protokoloetan eta klinikaren baloreetan trebakuntza dute. Haien lana adineko pertsonen eta haien familien behar indibidualetan, ongizatea eta segurtasunean zentratzen da, etengabeko gainbegiratzearekin eta jarrera proaktiboarekin.

## 11 Zer esango zenieke zerbitzua erabiltzea pentsatzen ari diren baina zalantzak dituzten familiei?

Adineko pertsona bat zaintzen duten pertsonen gurekin harremanetan jartzera eta ezagutzera animatzen diegu. Zaintzeko ezinbestekoa da gure burua zaintzea. Zerbitzu hau aktibo mantentzeko ideia da, errutinekin hausteko, jende berria ezagutzeko eta hainbat ekimenetan parte hartzeko.

Eraldatu  
zure irudia

gk

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

